

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

La Peluso, bitan

Larunbatean La Peluso martxa zikloturista dago jokoan, eta asteartean Emakumeen Nafarroako Klasikoko lehen etapa, ibilbide berberarekin / 2-3

LA PELUSO



Festa asteburua aurretik: Sanmigelak Uhartan eta Iturmendin eta Gurutzea Altsasun / 14

Euskalgintzaren Kontseiluak eskubideen aldeko manifestazioa deitu du larunbaterako / 5

Plazaola turismo partzuergoak bide berdeei buruzko foru legea egitea eskatu du Parlamentuan / 13

Amaia Razkin Medrano bigarren izan zen 68 kilometroko Nafarroa Extremen / 16

430 mendizale baino gehiago Altsasuko Hiru Mendi Zerrak mendi martxa osatzeko prest / 16-17

Aixita Bertso Sariketaren bigarren edizioa izanen da maiatzaren 4an, Pikuxarren / 20

Eztanda txaranga sortu dute Sakanako hamar musikari gaztek; bihar Altsasun joko dute / 21



Bi urteko etenaldiaren ondoren, igandean Altsasuko Dantzari Txiki eguna ospatuko dute / 22-23



La Pelusoko lehen edizioako boluntarioak. Goian, eskuinean, txuriz, Santi Moreno. LA PELUSO

La Peluso: lehena, oraina eta geroa

TXIRRINDULARITZA 1.500 txirrindularik hartuko dute parte larunbatean Irurtzunen antolatutako La Peluso martxa zikloturistan eta 15 talde lehiatuko dira igandeko La Peluso taldekako erlojupekoan. Santi Moreno irurtzundarra da guztiaren arima

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN
La Peluso martxa zikloturistaren bigarren edizioan 1.500 txirrindularik hartuko dute parte larunbatean Irurtzunen. Denbora gutxian proba entzutetsua bilakatu da. Santi Moreno Moreno txirrinduzale amorratua da La Pelusoren arima. "1984an Reynolds txirrindularitza eskola sortu zen eta ni txirrindularia nintzen, kadeteetan utzi nuen arte. 40 urteak gertu nituenean bizikletan hasi nintzen berriz. Behin, kafetegi batean *Nuestro ciclismo, por un equipo* Movistar

Team-eko Abarca Sports-ek 2015ean argitaratutako liburua ikusi nuen, Irurtzungo Reynolds taldearen ibilbide guztiaren berri ematen zuena. Guztia Pelusorekin hasi zen. Flipatuta geratu nintzen, eta handik gutxira La Peluso zikloturista martxa antolatzea bururatu zitzaidan" azaldu du Santi Morenok.

Nor zen Peluso?

Jesus Legarra, Peluso, ostalari-tza enpresari irurtzundarra zen. Nuevo Legarra taberna kudeatzen zuen bere anaia Joserekin bate-

ra. Aurrerago Sonhar diskoteka mustu zuen Irurtzunen, sona handia izan zuena. Pelusoren pasioa txirrindularitza zen, eta 1970. urtean Irurtzungo Alai-Nuevo Legarra txirrindulari taldea sortu zuen, jubenilen mailakoa. Irurtzungo Alai gazteak orduko klub bat zen, gazteen bilgunea. "Peluso zen txirrindularitza taldeko zuzendaria. Bere anaien eta Antonio Martinez "Chapas" Irurtzungo Alai elkarteko beste kide baten laguntzarekin aritzen zen. Oso pertsona hurbila zen, zalamerora, eta jendeak estimu

handian zuen. Lehen talde horretan Jose Andueza lakuntzarra, Felix Corres lizarrarra –lasterketa ugari irabazi zituena–, Eusebio Unzué eta beste hainbat zeuden. 1974an Inasa Reynolds enpresa babesle sartu zen, eta taldeak Irurtzungo Alai-Reynolds izena hartu zuen. 1976an taldeak afizionatuen mailara egin zuen salto, Reynolds izenarekin. Peluso, bere anaia eta Eusebio Unzué ibili ziren zuzendari, tartekatuz" gogoratu du Morenok. 1977 urtean Jose Miguel Echavarrrik Hector Rondán txirrindulari uruguaidarra lotu zuen Reynoldserako, eta Unzuérekin batera taldeko zuzendari lanetan hasi zen.

Reynolds, profesionala

1980. urtean profesional mailara salto egin eta Reynolds sortu zen, Movistar Team taldearen oinarria dena. Jose Miguel Echavarrri zen zuzendaria, Inasako zuzendari nagusi Juan Garcia Barberenaren babesarekin. "Taldea sortzeko 12 milioi pezeta eta erdi behar omen ziren, eta Barberenak 15 milioi jarri zituela esaten da. Peluso lehendabiziko Espainiako Vueltan Reynolds taldeko autobus gidari lanetan ibili zen eta taldean oso preziatua zen, baina familia negozioek tarte gehiago eskatzen zioten eta taldea uzten joan zen" gaineratu du Morenok. Reynoldsen lehen urte haietan Irurtzungo Alai taldeko Antonio Martinez "Chapas" presidentea eta Pello Alzueta idazkariak lan handia egin zuten.

Reynoldsen urrezko urteak

Reynoldsek hiru garaipen lortu zituen bere lehen urtean, 1980 urtean. Izokin koloreko maillot mitikoa hamabi txirrindularik jantzi zuten, horietatik hamar afizionatuetatik igotakoak eta gehienak euskaldunak: Miguel Acha, Juan Maria Azkarate, Vicente Iza... Jose Luis Laguía ezaguna, Reynoldsekin hamaika garaipen lortu zituen, lehen urtetik izan zen Reynoldseko taldekide. Dominique Arnaudek Espainiako Vueltan taldearen

lehen garaipena lortu zuen 1980an, Leonen. "Taldeak sekulako proiektzioa zuen. 1981an Laguía Espainiako Vueltako mendiko txapelketa irabazi zuen, eta 1982an Angel Arroyo taldera iritsi zenean taldeak gora egin zuen. Orduko promesa onenek, Pedro Delgadok eta Julian Gorospek ere Reynoldsera egin zuten salto. Eta garaipenak bata bestearen atzetik iritsi ziren. 1983an Arroyok Tourreko kronoeskalada irabazi zuen eta hori sekulakoa izan zen. Tourrean bigarren sailkatu zuen Arroyo. Urte horretan bertan Reynoldseko afizionatuen taldeko Miguel Indurainek Espainiako Txapelketa irabazi zuen eta beste izar bat jaio zen" adierazi du Morenok.

Txirrindulazaleek Reynolds bere egin zuten. 1984an Arroyok Tourrean beste garaipen bat lortu zuen eta Indurainek Reynolds profesionalen taldean debutatu zuen. 1985ean Arroyok eta Delgadok Reynolds utzi zuten, baina Indurainek Vueltako liderraren maillota jantzi zuen lau jardunalditan eta Chozasek etapa bat irabazi zuen Tourrean. 1986an Indurainek Tour del Porvenir irabazi zuen eta Marc Gomezek Vueltako bi etapa, eta Angel Arroyo taldera itzuli zen. Eusebio Unzué sartu zen kirol zuzendari, Echavarrirekin batera. 1987an Indurainek bederatzi garaipen lortu zituen eta 1988 urtea gakoa izan zen, Perico Delgado Reynolds taldera itzuli eta Tourra irabazi zuelako. Sekulako booma izan zen. "Garai hartan estatuan talde asko zeuden: Zor, Kelme, Kas... baina nik esango nuke Reynolds 80. hamarkadako talderik adierazgarriena izan zela" azpimarratu du Morenok.

1989an Banesto sartu zen Reynoldsekin batera taldeko babesle. Delgado hirugarren izan zen Tourrean eta Indurain Paris-Nizan gailendu zen eta Tourreko Pirinioetako etapa irabazi zuen. 1990 urtetik aurrera Reynoldsek babesle izateari utzi eta Banesto izena hartu zuen taldeak, eta Indurainen urrezko garaia hasi zen. Egitura bera baina Banesto,



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak


www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiak berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



Illes Balears, Caisse D'Épargne eta Movistar Team izenak iritsi ziren gero, baina hori beste historia bat da.

Reynolds eskola

Reynolds profesional taldea loratzen zen bitartean, 1984. urtean Reynolds eskola sortu zen Irurtzunen. "Reynoldsek maillotak eta diru laguntza ematen zuen eta eskolaren ardura gurasoek eta zaleek zuten. Guretako Reynolds maillota janztea sekulakoa zen, nahiz eta gero lasterketetan Aralar klubeko Salmenekoek sekulako pasadak ematen zizkiguten" dio irribarrez Morenok. Oroitzapenak politak dira. "Lasterketa, bokadilloa, Kas laranja, eta dominaren bat lortzen bazenuen mundiala zen. Burundakoak, Aralarakoak eta gu lehiatzen ginen batez ere, Sakanako ia herri guztietan antolatzen ziren lasterketetan. Denboraldia Sakanan egiten genuen gehienbat; tarteka Lekunberrin lasterketaren bat, eta gero Iruñekoa, Baiona Etorbidekoa. Gaur egun kirol gehiago daude, guztia dibertsifikatu da eta txirrindularitzako lasterketak Nafarroa osoan egiten dira" gaineratu du.

Reynolds talde profesionalaren aurkezpenak Irurtzunen bertan egiten ziren, eta txirrindulari ezarrak gertutik ikusten zituzten. "Guretako sekulakoa zen. Delgado, Arroyo, Laguía, Gorospe, Indurain... han bertan zeuden. Argazkia, boligrafoa, egutegia... denetatik ematen ziguten" gogoan du. Tamalez, Reynolds eskola desagertu zen, "ziurrenik profesionalen taldea Banesto bilakatu zenetik. Hala izango zen".

La Peluso, arrakastatsua

Santi Morenori 2017an bururatu zitzaion La Peluso zikloturista martxa antolatzea, "txirrindularitzak Irurtzunen izan zuen historia guztiagatik". Urte luzez bizikletan ibili eta masters eta bestelako txirrindularitza probetan parte hartzen duten bere anaia Angeli eta haren koinatu Alex Maiari ideia aipatu zien eta polita iruditu zitzaion. Urte horretan bertan Peluso hil egin zen, eta martxarekin aurrera egitea erabaki zuen Morenok. Proba Nafarroako Txirrindularitza Federazioaren bitartez antolatu nahi zuen, eta horretarako kirol klub talde bat izan behar zen antolatzailea. "Alex Maia Dos Hermanas Txirrindu-

laritza Taldeko presidentea zen, eta haren baiezkoa jasota, La Pelusoren lehen edizioa Dos Hermanas taldeak antolatuta egin genuen. Beranduago, Irurtzun Taldea kirolkartea sortu genuen eta egun klub hori da antolatzailea" azaldu du.

La Pelusoren ibilbideak zehaztea izan zen hurrengo pausoa. "Irurtzun toki pribilegiatua da: Gipuzkoatik eta Arabatik gertu gaude, eta Iruñea ukitzen dugu. Bestalde, ibilbidea antolatzeke aukera asko ditugu: Goñira jo dezakegu, Etxaurira, Larraunera, Ultzamara, Sakanara... eta beste elementu garrantzitsu bat: bigarren mailako errepideak dira, kamioi gutxi ibiltzen direnak. Ibilbidea bururatu zitzaidan, anaiari eta Maiari aipatu, eta aurrera egin nuen" dio. Proba luzea (138 km) gogorra eta gorabeheratsua da guztiz: zortzi portu dira -Goñi, Ulzurrun, Madotz-Zuarrarrate, Uitz, Usategieta, Saldias, Berueta eta Madotz-Zuarrarrate, azkenekoz-, eta Goñi, Irurtzun, Lekunberri, Uitz, Leitza, Orokieta, Lekunberri eta Irurtzun biltzen ditu. "Kanpokoei asko gustatzen zaie, paisaiarengatik, guztia berde-berde dagoelako. Egia esan, ikusgarria da". Ibilbide motzak 89 km ditu eta lau portu: Goñi, Ulzurrun, Madotz-Zuarrarrate eta Zia.

"PELUSO IZENA AIPATU ETA GUZTIOK LAGUNDU NAHI DUTE. OSO ESTIMATUA ZEN" SANTI MORENO

Omenaldiak

2019an jokatu zen 1. La Peluso eta sekulako arrakasta izan zuen. "Oso baikorra naiz, berez, eta harrera oso ona izango zuela espero nuen" dio Morenok. Probaren ienak atek zabaltzen ditu. "Peluso izena aipatu eta jende guztiak lagundu nahi zuen. Pello Alzuetak eta Chapasek Reynolds-eko txirrindulari ohiekin jarri ninduten harremanetan, eta Miguel Indurainek hainbat lasterketa ezagunetako zuzendari Miguel Sabalzarekin. Guztiak lagundu eta parte hartu nahi zuten eta dute" aitortzen du.

Azkenean 965 partaide izan zituen lehen edizioak, "izena ematea gelditu genuelako". Edizio hartan 1980ko Reynoldseko txirrindulari ohiak omendu zituzten, Antonio Martinez Chapas, 2017an zendutako Peluso eta 2018an zendutako Pello Alzuetak. "Chapasek eskerrak eman zizkidan, baita gainontzeko omenduek ere" dio Morenok. 2020an eta 2021ean ezin zen ospatu, pandemiagatik, eta 2021ean La Peluso BTT Xtreme proba antolatu zuten, 340 partaideekin. "Finean guk Irurtzunen txirrindularitza sustatu nahi dugu, herrira lasterketa gehiago ekarri. Anbizio hori dut. Horrela sortu zen ere asteartean Emakumeen Nafarroako Klasikoko lehen etapa Irurtzunen jokatzeko, La Peluso ibilbidean, Irurtzun eta Arakil udalekin elkarlanean" azpimarratu du Morenok.

Aurtengo nobedadea igandean, maiatzaren 8an, 10:00etan antolatu duten I. La Peluso taldekako erlojupekoa da. "Hamabost taldek

eman dute izena eta polita izango da. 36 kilometro izango dira, Ultzamako Itzulia" dio.

Aurretik, larunbatean, 8:30ean abiatuko da II. La Peluso Zikloturista Martxa eta giro ederra espero da. 1.500 partaide asko dira eta herriko ostatu, jabetxe eta tabernetan izugarri nabaritzen da. Askok aspaldi beteta daude. "Saillkapena argitaratzen dugu txirrindulariek gustuko dutelako, baina hau erronka da, ez da lasterketa bat. Bazkaldu ondoren opari loteak zozketatzen ditugu eta ondoren omenaldia izango da". Aurten urte hasieran zendutako Antonio Martinez Chapas, Enrique Sanz txirrindulari ohi eta 1981, 1982 eta 1983 urteetako Reynolds taldeko txirrindulariak omenduko dituzte. "Aurreko edizioan bezala, guztiak egongo dira Perico Delgado izan ezik, Castellongo beste lasterketa bateko enbaxadore delako. Baina Arroyo, Gorospe, Acha, Segura, Zuñiga, Hernandez, Prieto, Laguía, Gorospe... egongo dira. Baita Indurain eta beste, eta askok proba osatuko dute". Bukatzeko, Aralar Txirrindularitza Taldeari euren alde egindako diru bilketan jasotakoa emango diote, "klubak 42 urte daramatzalako lanean eta Irurtzunge txirrindulariak bertan trebatzen direlako".

"TXIRRINDULARITZA SUSTATU NAHI DUGU, HERRIRA PROBA GEHIAGO EKARRI" SANTI MORENO

Bi ibilbide eta erlojupekoa

Larunbateko La Peluso martxa zikloturistak bi ibilbide ditu: luzea (138 km 2.700 m desnibel+) eta laburra (87 km, 1.550 m desnibel +). Igandeko taldekako erlojupekoan 15 talde lehiatuko dira eta Ultzamako Itzulia egiten dute (36 km).



NAFARROAKO KLASIKOA

Asteartean Emakumeen Klasikoa

La Peluso ibilbide luzea osatuko du asteartean, maiatzak 10, munduko txirrindularirik onenak bilduko dituen Emakumeen Nafarroako Klasikoko lehen etapak. 14:35ean abiatuko da, eta 18:18 aldera despeditu. 21 talde lehiatuko dira, 6 UCI World Tour mailakoak, Movistar Team tartean. Babesleen artean Irurtzun eta Arakilgo Udalak eta La Peluso daude. "Emakumeen Nafarroako Klasikoko zuzendari Miguel Sabalzarri probaren bat ekartzeko aukera plazaratu nion, eta Emakumezkoen Nafarroako Klasikoa ekartzeko aukera sortu zen" azaldu du Morenok. Azken bi urteetako txapeldun Annemiek Van Wleuten (Movistar Team) eta Mavi Garcia (UAE Team) dira faboritoak.



1984. Reynolds eskola taldea, Gartzaronen egindako erakustaldian. Tartean Santi Moreno dago. LAPELUSO



ASTEKOA

AITZIBER GRADOS MUÑOA

Intoxikazio zoragarria

"Gaur goizean ohetik altxatu eta janterakoan ez nekien zer jantzi, eta horregatik irribarre bat jantzi diot neure aurpegiari". Zuk irribarre jantzen zenuen bitartean nik ohean buelta erdi eman eta lotan jarraitu dut, askotan halakoak entzuteko hobeto baita ez esnatzea. Esaldi erromantizatzaileegia da, baina inguruan entzun behar izan dut halakorik. Eta badago esaldi horren losoz egunari aurre egiteko babesa topatzen duenik. Ze gehienetan egunei aurre egin behar izaten zaie. Zerbaitenganako esperantza izatea beharrezkoa zaigu, baina mesedez, ez zaitzala katilu bateko esaldiak irentsi. Edo ez zaitzala katilu horretan ortzadarra edaten duen zure lagunaren aholku erromantikoetan hondoratu. Badakizue zertaz ari naizen, *Mr Wonderful*. Aspaldi jarri ziren modan Mr Wonderful markako katiluak. Izenak berak dio. Katilu

ZERBAITENGANAKO ESPERANTZA IZATEA BEHARREZKOA ZAIGU, BAINA MESEDEZ, EZ ZAITZALA KATILU BATEKO ESALDIK IRENTSI

horretan tragoa hartuz gero "zoragarri!!!" joanen zaizu eguna. Barruko edaria Sosa Kaustikoa bada ere. Zoriontasun faltsuaz intoxikatuta; zure lagunaren aholkuak eta eguneroko gordintasuna. "Bizitzak limoiak ematen badizkizu egin limonada!", esan zuen limoi zukua begietara botatzen

zuen bitartean. Uste dut argi geratu dela tankerako adierazpenak esaten dituenari beste zerbait zuketuko niokeela. Tamalez, erromantizazio horretan babesten denari trago zoragarri horiek garesti aterako zaizkio.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Kartzela. Odoletan dagoen zauria

SAKANAKO SARE ETA ETXERAT

Sufritzen dugun gatazka politikoari konponbide justu eta demokratikoa ematea delako iraganeko zauriak ixten eta etorkizuna eraikitzen joateko modu bakarra, etorkizun horretan beste inor indarkeriaren eta sufrimenduaren biktima izan ez dadin ideia politiko batzuk defendatzeagatik.

Konponbideak izan behar ditu bere lehenetsunak, bere presak, bere agenda. Lehenengoa kartzelak hustutzea da. Zauri bat ixtea ezinezkoa baita odol-jarioa

ez bada gelditu. Lehenengo eta behin odolaren isuria eten behar da, biziak ihes egiten dizulako bertatik, eten ezean. Eta kartzela, gaur eta hemen, oraindik odoletan dagoen zauria da. Denborak axola du. Horrexegatik, deia zabaldu nahi dugu ahaleginak areagotzera, euskal presoak etxera itzuli daitezten lortzeko lanean. Badakigu horrek anbizioa eta enpatiarako gaitasuna eskatzen dituela, denok uler dezagun bidea irekitzeko, eman beharra dagoela, jaso

aurretik. Besteen sufrimenduarekin solidarioa izan behar dugu, eta sinistu behin betiko konponbideak globala behar duela izan, biktima guztien sufrimendu guztietarako konponbideak landu behar dituela. Urteak daramatzagu bide hori jorratzen, eta harro egon gaitzke lortu dugunaz. Behin betiko konponbidea gertuago dago orain duela zenbait hilabete baino.

Aurrerapausoak egiteari utzi gabe, segi dezagun bidea irekitzen.

GUTUNA

Hamaika taupada lurrarekin bat

AMAIA ERDOZIA ANSO ETA GORKA OVEJERO GANBOA

SAKANAKO GOI TENTSIOKO LINEEN AURKAKO PLATAFORMA

Gaur egungo 220 KV-ko goi tentsioko linearen ordezkari 400 KV bi argindar linea berrik zeharkatuko dute gure bailara REE eta Forestalia enpresen egitasmoak burutzen badira. Nafarroako hainbat eskualde, Gipuzkoako Goierri eta Arabako Lautada zeharkatuko dituzten goi tentsioko lineak dira. Gurean 80 metroko 197 dorre metaliko ezartzea ekarriko dute eta marrazten duten ibilbide guztian zehar landa eta baso eremu zabalak hartuko dituzte.

Ez, ez dira Sakanako biztanle edo bertako enpresei hornidura bermatzeko azpiegiturak. Autopista elektrikoak dira! Multinazional elektrikoek mozkin gose ase ezinak garatzeko beharrezko dituzten bitartekoak baizik. Beraientzat izango dira etekinak, guretzat lurraldeari, bertako naturari eta bertakoon osasunari eragindako kalteak.

Jasangarriago eta efizienteagoa izan beharko lukeen trantsizio energetiko deszentralizatu bat bultzatu ordez, inolako plangintzarik gabe, energia berriztagarrien soingaineko jantzita, gaurko sistema harrapakari eta espekulatiboaren parametrotan jarraitu nahi

duen enpresen mende utziko gaitu.

Herritarrok egitasmo hauek geldiarazteko eta agintariei lurraldearen zaintza eta herritarron nahia enpresen etekinen gaintetik ezar dezaten exijituz, goi tentsioko lineen aukako plataformak Lurkide kanpaina abian jarri dugu.

Gure lurra okupatuko lukeen dorre bakoitzeko eragile, elkarte edo lagun talde bat aktibatu nahi dugu eta lurraren babesle bilakatu. Horretarako sakandarron inplikazioa eta laguntza behar dugu. Izan zaitez zu ere Lurkide. Maiatzaren 29an Etxarri Aranatzaren Lurkide Eguna izango da.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



**Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua**

"Herritarren eskubideak daude jokoan"

PAUL BILBAO SARRIA EUSKALTZALEEN KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA
Bihar, 17:30ean, Iruñeko Antoniutti parketik abiatuko da "Herritarrak ez gutxietsi. Eskubideak guztiontzat" manifestazioa. Altsasun, gaur, 19:00etan, kontzentrazioa

SAKANA

Manifestazio deialdia egin ondoren, gertaerek mobilizaziorako arrazoiak pilatu dituzte. Hasieran lanpostu publikoen sarbiderako probetan atzerriko hizkuntzak euskara bera baino gehiago baloratzeko asmoa salatzea zen helburua. Aurreko ostegunean PAI programa hezkuntza eredu bihurtzeko erabakiak kalera ateratzeko arrazoi gehiago eman dizkio Euskalgintzaren Kontseiluari.

Nafarroako Gobernuak administrazio publikorako sarbidea arautuko du. Nola gutxiesten ditu euskaldunak?

Gutxietsi ez ezik, ikusgabetu ere egiten gaituzte euskal hiztunok. Nafarroako Gobernuak Merezimenduen Dekretu hau onartuz gero, lanpostu guztietan kontuan hartuko da ingelesaren, frantsearen eta alemanaren ezagutza; euskararena, aldiz, lanpostu batzuetan besterik ez. Horrek esanahi du Nafarroan berezkoak eta ofizialak diren hizkuntzei garrantzi eta aitortza gutxiago emango zaiela atzerriko hizkuntzei baino.

Hiru hizkuntza eremutan zatikatu-ta gaituzte. Hiruetan eragin bera luke?

Ofizialtasunak (edo ofizialtasun ezak) eragin zuzena du ondoren garatzen den araudian. Izan ere, hizkuntzak estatus ofiziala duen eremuetan zailagoa da ganorako hizkuntza politikak abian jartzea. Oraingoan, hiru eremuetan gertatuko dira atzerapausoak. Legeak ezarritako eremu euskaldunean, esaterako, atzerapauso onartezina egin nahi dute, euskararen ezagutza eskatuko duten jendareko lanpostuak %20tik %10era murriztuz. Aurreko Gobernuak euskararen ezagutza baloratzeko onartu zuen irizpideak Auzitegiaren oniritzia izan arren, eragitea lortzen ez badugu, oraingo Gobernuak ezabatu egingo du. **Orain arte halakorik egin da?**



Nafarroako Euskalgintzaren Kontseiluko kideak eta Paul Bilbao Sarria. UTZITAKOIA

"ONARTU ZIREN BALORAZIO IRIZPIDEAK AUZITEGIAREN ONIRITZIA DUTE, BAINA EZABATU NAHI DITUZTE"

Esango nuke halakorik ez dela inoiz gertatu. Badakigu Nafarroako Auzitegiak zer-nola jokatzen duen euskal hiztunon eskubideei dagokienez. Ohitura izan du irakurketa murriztuz egiteko, eta ondorioz, hartu izan diren erabaki eraginkorrak atzera botatzeko. Orain, Gobernuak berak bota nahi du atzera Auzitegiak ontzat emandakoa. Bestela, eta Dekretuaren irizpide orokorreari dagokienez, bere garaian UPNk abian jarritako estrategiaren kopia egin dute. Tamalez, ezaguna egiten zaigu berezko eta ofizialak ez diren hizkuntzei euskarari baino tratuera duinagoa esleitzea.

Eta euskaldunendako horren guztiaren ondorio praktikoa zein litzateke?

Herritarren eskubideak daude jokoan. Finean, langile elebiduna izango da herritar guztien

eskubideak bermatuko dituen, edozein hizkuntza hautatuta ere. Horregatik, azken asteotan herritarrak ekarri nahi izan ditugu erdigunera, alegia, herritarrak gutxietsiko ez dituen eta herritar guztion eskubideak bermatzea ekarriko duen dekretua behar dugu.

Foru administrazioaren hizkuntza profil elebiduna duten lanpostuak oso gutxi dira, baita eremu euskaldunean ere. Horiek zehaztea onartutako araudiari aurre egiteko aukera bat litzateke?

Legeak ezarritako eremu euskaldunean hori izan daiteke bidea, bai. Halere, hor ausardia gehiago beharko litzateke, eta lanpostu guztietan ezarri euskararen derrigorrezko ezagutza, herritar guztien eskubideak bermatzeko. Gobernuak, aldiz, euskararen balorazioa jaitsi nahi du dekretu berriaren bidez. Ofiziala ez den eremuetan zailtasun handiagoak daude profil elebiduna duten lanpostuak ezartzeko, hainbat sindikatu eta alderdi saiatzen dira lanpostu horien guztien aurkako helegiteak jartzen, eta, tamalez, auzitegiak gehienetan euren alde jartzen dira.

Bestalde, PAI programa hezkuntza eredu bihurtzea zergatik da "oso larria" Euskalgintzaren Kontseiluarendako?

PAI ereduak euskarazko irakaskuntzaren zabalkundea galgatzea zuen helburu, eta halaxe berretsi zuen orduko Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak telebista bateko elkarrizketan. Lotsagarria da, egun, milaka hurrek eta gaztek berezko hizkuntzaren inolako noziorik ez izateko sistema bat indarrean mantentzen den bitartean, atzerriko hizkuntza hala edo nola sartu nahi izatea. Gobernuaren funtzioa eta betebeharrak da berezko hizkuntzaren ezagutza zabaltzea eta hedatzea. Halere, nahiago du eskubide berriak asmatu eta fatxada hori baliatu erabaki euskarafoboak hartzeko.

Zergatik atera behar du euskaldunak eta euskaltzaleak kalera larunbatean?

Nafarroa berdinzale, justu eta kohesionatua aldarrikatu behar dugulako. Ez dugulako bigarren mailako herritar izan nahi, eta ez dugulako merezi inolako gutxiespenik. Guztiontzako eskubideak aldarrikatzen ditugu, eta Nafarroako Gobernuari horiek bermatzeko neurriak abian jar ditzala eskatzeko atzera gara kalera. Finean, hori dago jokoan: nafarren arteko berdintasuna. Dekretua ez da oraindik onartu, eta garaiz gauza aldaketak eragiteko.

Nafarroako Lurralde Estrategia Berria aztergai

Maiatzaren 25ean, 18:00etatik 20:00etara, Irurtzango kultur etxean bilera deitu du gobernua

SAKANA

Lurralde Antolamendurako Departamentuak Nafarroako Lurralde Estrategiaren (NLE) errebisioa sustatu du. Eta horri lotuta erabaki du LNEz eztabaidarako eta herritarren partaide-tzarako plan bat abian jartzea. Foru administrazioaren helburua da Nafarroako sektore eta hiritzango politiken diseinuan hiri eta lurralde iraunkortasunaren eta gizarte kohesioaren printzipioak sartzea.

Parte hartzea sustatzeko Nafarroako 12 eskualdeetan bilerak egingen dituzte. Irurtzunen hilaren 25ean egingen den bilkurara Leitza aldeko, Larraungo eta Sakanako eragileak daude deituta. <https://labur.eus/b8DmF> helbidean eman behar da izena. Bileran NLEren zirriborroaren gobernua informazioa eskaini eta zalantzak argituko ditu, eta bestetik, parte hartzaileen ekarpenak jasoko ditu.

C.A. OSASUNA VS GETAFE F.C.

MAIATZAK 11, ASTEAZKENA

19:00-21:00 EUSKALERRIA (IRRATIKO KONEXIOA 18:45ETAN) IRRATIAREN BIDEZ

euskalerrriarratia

107.3 FM

beleixe

ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS

Mende erdiko Lagun Onak

Elkartek bere 50 urteurrena bazkari batekin ospatuko du larunbatean. Bazkideak, bazkide ohiak eta elkarteko lagunak elkartuko dira mahaiaren bueltan. Igande eguerdian, ohi bezala, auzatea eskainiko du. Hilero jarduera bat antolatuko du

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Pandemiagatik beharrezko pa-txadarekin ezin izan dute urteurren bazkaria behar bezala antolatu eta 50 bat pertsona eta txaranga elkartuko dira bazkal-tzera. "Santa Agenda ospatu ez zuten batzuk maiatzeko gurutzean kinto bazkaria egin behar dute. Beste batzuk oportetan joan dira... Horregatik, bazkide batzuk ez dira bazkarian izanen. Baina espero dezagun irailaren 15eko bazkarian egotea. Bazkari hori elkartea sortu zuen kuadrillak egiten zuen", azaldu du Iñaki Lanz Agirre elkarteko presidenteordea eta 50. urteurreneko batzordeko kideak. Maiatzeko gurutzeko ospakizunarekin batera, domekan, elkarteak altsasuarrei hamabietakoa eskaintzen die urtero. Horregatik, festetan edo ferietan ez dute auzaterik eskaintzen.

Urteurren ekitaldiak antolatzeko batzordea azaroan eratu zuten zuzendaritzan ez dauden bazkideek. "Pandemiarekin ez genekien zer antolatzeko aukera izanen genuen eta, hara sorpresa: Santa Agedako korua atera zen! Aspaldi ateratzen zen eta pandemia baino bi urte lehenago berreskuratu genuen". Apirilaren 24an DBA txapelketa jokatu zen elkartean (miniaturazko figurekin jokatzeko den gerra zaharren jokoa). Elkartekideen asmoa da urteurrena dela eta hilero jarduera bat antolatzeko. Momentuz aurreikusituztenak dira: ping pong txapelketa (duela sei eta zazpi urte egin zen), udarako mendi mar-txa bat antolatu nahi dute, irailaren 15eko festetako bazkaria, maiatzeko gurutzeko artisau feria egon aurretik elkarteak antolatzen zituen herri jokoa berreskuratzea ferietarako (zin-

ta, sagarra zuen pertza, uz-taiak...), mus txapelketa... "Lotu ahala jakinaraziko dugu".

Historia

Lau kuadrilla elkartu ziren 1971n eta elkartea sortzea erabaki zuten. Haien artean Lagun Onak kuadrilla zegoen, jarduerak egiteko egoitza behar zuenak. Horretarako foru plazako 14. zenbakian zegoen lokala (egungo elkartea) hartu zuten elkartea sortzeko. Estarbia zena auzolanean egokitu zuten. Beheko sua zuen bajera bat besterik ez zen lehen elkarte hura. Hasieran alokairuan egon ziren. Estatutuak idatzi eta beste egiten ziren bitartean 1971 eta 1972 urteetan behin behineko zuzendaritza izan zuen. 1971ean egindako batzar batean zuzendaritza aukeratu zuten eta 1972ko martxoan elkartea eratu eta erregistroan izena eman zuten. Ondoren jabe-berri eraikina erosi zioten eta 1984an eraikina berritzeko lanak egin zituzten, elkarteari gaur egungo itxura emanez.

Lagun Onak kuadrillak XIV. Espainiako Akordeoi Txapelketa antolatu zuten 1971ko maiatzaren 1ean eta 2an. Elkartean kopak eta txapelak daude. Lagun Onak elkarteak sokatira taldea izan zuelako eta hainbat lehiaketetan parte hartu eta saritu zituzten. Altsasun egiten zen zaldiki gisatu txapelketan eskrutatutako garaikurrak ere badi-tuzte elkartean. Garai batean Lagun Onak elkarteak mus

"MUSUKOAREN DERRIGORTASUNA KENDU DENETIK JENDEA ELKARTERA BUELTATZEN HASI DA"

txapelketa antolatzen zuen ere. Bestalde, Altsasuko San Silbesterre lasterketa Nafarroako zaharrena da. 42 edizio jokatu dira 1978tik eta hura antolatzen Lagun Onak elkartea hasi zen. Baina araudi aldaketa eta dirulaguntza faltagatik atletismo klubaren esku utzi zuten proba.

Elkartez

Lagun Onak-ek 72 bazkide plaza ditu eta gaur egun 66 gizon-ema-kume dira bazkide. Haietako hiru elkartea sortu zenetik dira bazkide. Sei plaza hutsik daude eta nahi duenak egin dezake elkartean sartzeko eskaera. "Duela lau urte estatutuak moldatu eta bi bazkide mota ditugu: erai-kinaren jabe den A bazkidea eta B bazkideak ez du zuzendaritza-kete beharrik edota zerbitzuen elkartean, baina kuota pixka bat handiagoa ordaintzen du", azaldu du Lanzek. Hamarrek osatzen dute zuzendaritza eta urtero erdia berritzen da.

Lanzek azaldu duenez, "musukoak kendu direnez geroztik, jendea elkartera bueltatzen hasi da. Ordura arte ez zen etortzen. Zeren musukoa jantzita afaltze-ra etortzea ez zen plana. Asteburuetan mugimendua ikusten hasi da berriro. Ohikoak arratsaldeetan egon gara, baina gutxi gehiago. Nik uste dut 60 urtetik gorako bazkide batzuei etortzea kostatuko zaiela".

Himnoa

Lagun Onak kuadrillak himnoa du, Manuel Turrillas Ezkurra maisuak konposatutakoa. Letra Agustin Gonzalez de Acilurena da. Kuadrillaren 50 urteurrenean Turrillasi omenaldia egin zioten. Enrike Zelaiak himnoaren bert-sioa *Nafarroa* diskoan argitaratu zuen.



Manuel Turrillas Ezkurra himnoaren konposatzaileari omenaldia. LAGUN ONAK



Elkarteko sokatira taldeko kideak gorritz eta bazkideak. LAGUN ONAK



DBA txapelketako parte hartzaileak. LAGUN ONAK



Iñaki Lanz Agirre elkarteko presidenteordea.

"Jaibusa gidatzen duten pertsonendako da"

JOSUNE, LUCI ETA ENEKA SAKANA PREBENTZIO TEKNIKARIAK

Haren helburua da jai egunetan etxeratzea erraztea eta trafiko istripuak prebenitzea da. Larunbatean bueltan izanen den zerbitzua

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Ibarreko hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako drogamenpekotasunei aurre egiteko programen ekimenez sortu zen Jaibusa 2000. urtean. Programa horiek, bestek bestek, drogak kontsumitzen hasteko adina atzeratzea du helburu.

Jaibusa gaztetxoendako zerbitzu bat da?

Luci Gonzalez de Pedroso Saez. Ez. Auto istripuak prebenitzeko programa bat da, arrisku handiko uneetan funtzionatzen duena: festetako ordu txikietan. Arazoa ez da isun bat jasotzea, baizik eta istripu bat izatea.

Eneka Irizar Martinez. Ez. Jaibusa gidatzen duten pertsonen zuzendutako programa da. Zerbitzua ere edan duen norbaitekin autoan muntatuko direnendako da, etxera oinez bueltatuko direnendako, auto-stop egin dezaketenendako...

Beraz, adinez nagusi direnendako?
Josune Zabala Ijurko. Hala da, bai. Jai egunetako trafiko istripuak prebenitzeko programa da Jaibu-



Jaibusaren sustatzaileak arduradun gisa lan egiteko jende bila dabilta.

sa. Etxeratze eta trafiko istripuak murrizteko baliabideak erraztea da bere helburua. Horretaz aparte, sakandarrak kontsumoen inguruan eta kontsumitu ondorengo jokabideen erantzukizunaz kontzientziatu nahi ditu.

Aurten Jaibusean adinez nagusiak direnak ibiliko dira bakarrik?

E. Errealitate bat da gazteak herrietako festetara joaten direla. Horrek arrisku batzuk ditu, esaterako, edaten duten pertsonekin autoan joatea. Horregatik,

16 eta 17 urteko gazteei erabilera baimentzeko salbuespena egingen dugu. Hala ere, adin horietako gazteek beraien familien baime-na beharko dute.

J. Gure ustez Jaibusa ez da adin horietako gaztetxoek zuzendutako baliabidea. Are gehiago, Osasunbidearen gomendioa da 18 urtetik gorakoak erabiliko duten zerbitzua izatea. Nafarroako beste eskualde batzuetan adin muga hori ezarria dago.

Baimenak gurasoak prebentzioaren kulturara sartzeko modua da?

E. Festak gauzez ateratzen hasteko markoa da gaztetxoendako. Gurasoek Jaibusa testuinguru babesletzat jotzen dute: etxera bueltatzeko ordutegi zehatza ezartzen du eta ingurune kontrolatua da.

L. Baina batzuetan errealitatea guztiz bestelakoa da. Eta garrantzitsua da zera kontuan izatea: zenbat eta gazteago izan eta kontsumo guneetan denbora gehiago pasa, orduan eta aukera gehiago dago kontsumitzeko eta haiekin arazoak izateko.

Baimena nola eskuratu daiteke?

L. Gazteen gurasoak edo legezko tutoreak dagokien Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan egoitzara joan behar du. Adingabearen argazkia eraman behar du eta egoitzan inprimaki bat bete beharko du.

Jaibusaren inguruko uste oker gehiago daude?

L. Batzuek herrietako festak eta ospakizunak bulkatzeko zerbitzu gisa hartzen dute. Eta ez da hala.

Bigarren Hezkuntzako Drogen erabileri buruzko XIV. Inkestaren berri eman zenuten joan den aste-ko GUAIXEn.

J. Nafarroan gero eta gehiago kontsumitzen da alkohola, eta gero eta gazteago hasten dira edaten; atrakoiak edo denbora gutxian asko edatea. Nafarroa alkohol kontsumoaren eta mozkorraldiaren liderra da atzera ere. Oso kezagarria iruditzen zaigu. Estreinakoz ikusi da alderdi gehienetan kontsumo handiagoa dela emakumezkoen kasuan. 14 eta 17 urte bitarteko gaztetxoek ari gara. Geroz eta gehiago planteatzen ari gara prebentzio programak genero ikuspegitik egitea, neskek eta mutilek edateko moduak eta motibazioak desberdinak dituztela.

Jaibusaz

Instagram

Jaibusaren ordutegien eta hari buruzko albisteen berri ematen duen kontua sortu dute sare sozial horretan. Erabiltzaileek ekarpenak egin ditzakete kontu horren bidez.

Ordutegiak

- Joateko **23:00etan eta 24:00etan.**
- Bueltatzeko **03:00etan, 05:00etan eta 07:00etan.**

Gasoleo A ibilgailuentzat
Gasoleo B nekazaritzarako
eta kalefakziorako

www.iparoil.com



IPAR OIL

GASOLEO BANAKETA

Sakanako bailara

Tel. 620 143430

Langraiz Oka	Santurtzi	Urnieta
Los Llanos industriagunea 01230 Langraiz Oka (Araba) 945 371358 • 648 250975	Aparkabisa industriagunea 48980 Santurtzi (Bizkaia) 945 371358 • 686 525761	Erratzu industriagunea - 201 20130 Urnieta (Gipuzkoa) 943 330311 • 646 716256

Osasun publikoaren aldeko jarraipen lana

Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko Plataformak helburu hori jarri dio bere buruari. Ibarreko udal guztietan osasun publikoaren aldeko mozioa aurkeztu du plataformak. Bestalde, Herri Ekimen Legegilearen aldeko sinadurak biltzen segituko dute maiatzean

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasuko osasun etxeen parean kontzentrazio bana deituz mustu zuen bere jarduna astearte goizean Sakanako Osasun Publikoaren aldeko Plataformak. Hango kide Gurutze Arregi Mujika altsasuarrak azaldu duenez, "gure osasun etxeetan dauden langile gabeziengatik eta osasun arreta mantentzea eskatzeko" elkartu ziren asteartean. Arregik azaldu duenez, plataformatik "kezka" begiratzen dute osasun arreta "hartzen ari den joera orokorrari". Plataformako kideak Osasunbideak Lehen Arretak hobetzeko planteamenduak zerrrendatu ditu: teknologia berrien aprobetxamendu handiagoa; Internet sustatzea eta haren bidez osasun karpeteraren erabilera; aurrez aurreko arreta eta aurrez aurrekoa ez dena definitu eta protokolizatu nahia; pazientei arreta emateko epe maximoak markatzea; osasun etxetara bideratzen diren pazienteen kopurua mugatzea; momentuko eskaerak erizainen ardurapean uztea... "Zalantza asko sortzen zaizkigu eta pazienteei eman behar zaion benetako arreta arriskuan egon daiteke".

Sakanan sortu berri den plataformako kide Josu Rubio Mendiluzek gaineratu duenez, "batez ere, aurrez aurreko arreta, ekipamenduarekin ordezkatzeko planteatu dute". Zehaztu duenez, "gu ez gaude Lehen Arretari laguntzeko erabakien kontra, baina arreta modu presentzialean ematea eta pazientearen borondateari erantzutea aldarrikatzen dugu nagusiki. Hau da, bere medikuarekin egotea eskatzen badu, egotea, eta beharrezkoa den denbora". Arregik gaineratu duenez, "buru osasuna eta gauza asko daude egiteko Lehen Arretan. Orain mediku faltarekin hasi gara, baina horrekin ez da bukatzen".



Kalitateko osasun publikoaren aldarria osasun etxeen ateetara eraman zituzten.

HOBETZEKO ASMOEK ZALANTZAK SORTZEN DIZKIETE, "BENETAKO ARRETA ARRISKUAN EGON DAITEKE"

Langile falta

COVID-19 gaitzaren "aitzakiarekin besteak beste plantillak eta inbertsioak murrizten" ari direla uste dute. Rubiok dauden langileei erreparatu die: "garrantzitsua da jabetzea gelditzen den plantilla zein egoeratan dagoen. Psikologikoki jota daude. Guk kanpotik ikusten dugu, baina barrutik ere ikusi behar da nola dauden. Horregatik ari gara borrokatzen, osasun publikoaren alde. Dirua osasun publikora bideratu behar da, ez pribatura".

Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Osasunbideak, jakinarazi zuenez, maiatzean hainbat lanpostu beteko zituela. Irurtzongo osasun etxean pediatria plaza, Etxarri Aranazkoan pediatria eta mediku plaza bana eta Altsasukoan hiru mediku plaza. "Baina ez dira nahikoa langile izanen. Horrekin ez da betetzen plantilla",

argitu du Rubiok. "Horregatik, mugitzen segitu nahi dugu". Arregik ziurtatu duenez, "gobernuak promesak egin zituen, baina haiek bete daitezkeen jarraipena egingen dugu". Jarraipen horren parte izanen da "etortzen diren medikuak gelditzen diren" jakitea.

Plataformaz

Hiru herrietan nor bere alde hasi zen osasun publikoaren alde egiten. "Altsasuarrak ere Nafarroako Osasun Plataformaren bileretan parte hartu dugu Iruñean. Han sortu zen ibarreko koordinadora egiteko ideia. Irurtzundarrak, etxarriarrak eta altsasuarrak elkartu eta plataforma osatzea erabaki genuen, beharzagatik", gaineratu du Arregik. Bestalde, osasun publikoaren aldeko Herri Ekimen Legegilearen aldeko sinadura bilketan segituko dute plataformakoek. Esate baterako, garrarila bitarteko asteazkenetan 11:00etatik 13:00etara, Altsasuko azokan sinadurak jasoko dituzte gero Kongresuan aurkezteko. Bestetik, ibarreko hamabost udalei osasun publikoaren aldeko mozioa aurkeztu diete.



Sunsundeguien Sc7 autobus modeloa. UTZITAKOIA

Sunsundeguiak Cofidesen 8,9 milioiko finantzaketa lortu du

Finantzaketa 4,5 milioi euroko partaidetza mailegu eta 4,4 milioi beste mailegu arrunt baten bidez egingen da

ALTSASU

Zuzendaritza enpresarendako Bideragarritasun Plana egiten ari dela, SunSundeguiak Cofidesen bultzada jaso du. Izan ere, Estatuko funtsak kudeatzen dituen sozietate publiko-pribatuak Altsasuko autobus enpresaren finantziario eskaera onartu du eta SunSundegui 8,9 milioi euro emanen dizkio. Dirua Cofidesek kudeatzen duen COVID-19ak kaltetutako enpresak Birkapitalizatze Funtsean (FONREC laburdura gaztelaniaz) Inbertsio Batzorde Teknikoak 8,9 milioi euroko finantzaketa baimendu dio SunSundegui, 4,5 milioi euroko partaidetza mailegu baten eta 4,4 milioi euroko beste mailegu arrunt baten bidez.

Cofidisek SunSundeguien bideragarritasuna aztertzeke eskatu zion Crowe & Horwath HTL Partnersek finantza aholkulariak eta Montero-Aramburuk lege aholkulariak osatutako Aldi Baterako Enpresa Elkarteari. Altsasuko enpresatik jakinarazi dutenez, finantzaketa hori lortzeko proba zorrotzak pasa behar izan dituzte. SunSundegui zuzendari kudeatzaile Jose Ignacio Murillok Diari de Navarra adierazi dionenez, "finantzaketaren baimentzea oso berri ona da SunSundeguiendako, eta enpresaren etorkizuna bermatuko duen Bideragarritasun Plana lortzeko pauso garrantzitsua da".

Finantziario hori 2022-2027 Bideragarritasun Planaren parte da. Haren bidez SunSundegui

honoak lortu nahi ditu: eskaera zorroa handitzea, etorkizunean karrozeria eta modelo berriak garatzea, digitalizazioa, lan eta ingurumen segurtasuna indartzea, enplegua berreskuratzea eta administrazio publikoek aldi baterako emandako dirulaguntzak bueltatzea. Esaterako, 2024rako autobus elektrikoak karrozatu nahi ditu, eta 2027rako egungo eguneko 1,1 autobusetik 2,46ra pasa nahi du eta horrela errentagarri bihurtu. Azken finean, planaren helburua litzateke SunSundegui bihurtzean kaudimendun, jasangarria eta etorkizuna duen enpresa bat. Cofidisek izendatutako rating agentzia batek plana aztertu eta "B" kalifikazioa eman zion 2019an.

FONREC funtsa jatorri publikoko 1.000 milioi euroko hornitua dago. Haren helburua da estatuko eta eskualdeko enplegua eta produktzio sarearen suntsitzea saihestea. Funtsa 10 eta 400 milioi euro arteko salmentak dituzten enpresa ertainei zuzenduta dago, eta, epe luzera bideragarriak izanik ere, pandemiaren ondorioek haien bizi iraupenari eragiten diete. Funtsaren finantzaketa itzulgarria 2,5 eta 25 milioi euro artekoa izan daiteke, eta aldi baterako inbertsioen bidez gauza daiteke, kapital sozialeko partaidetzen, partaidetza maileguen eta bestelako finantza tresnen bidez. Finantzaketaren iraupena 8 urtekoa da gehienez, baina funtsaren espirtuak inbertsioak azkar amortizatzea bilatzen du (5 urte inguru).

Mendiko ibilbideak berritzeko agindua

Parte hartze aurrekontuen bidez irurtzundarrek erabaki hori hartu dute. Irurtzungo Udalak aurreikusitako 70.000 euroak horretara bideratuko ditu. Gainera ur biltegi gainean begiratokia egitea eta Plazaola bide berdean atsedenguneak sortuko ditu

IRURTZUN

Irurtzundarrek parte hartze aurrekontuen bidez aurkeztutako lau aukeretak baten alde botoa emateko aukera izan zuen otsailaren 7tik 19ra. Udalaren 70.000 eurori zer erabilera eman erabakitzeak aukera baliatu zutenak 256 herritar izan ziren. Herri kontsultan babes handien lortu zuen proiektua mendiko ibilbideak berritzearena izan zen. Haren alde egin zuten 101 irurtzundarrek, hau da, botoen %39,45. Irurtzundarren antzeko babesa lortu zuten beste bi proiektuak: Barraketarako esparrua asfaltatu edo hormigoituen aldeko 56 boto izan ziren (%21,87) eta Larrazpi gazte elkartearen sulkaldea, leihoak, elektrizitate azpiegitura eta beste berritzearen alde 52 herritarrek egin zuten (%20,31). Babes gutxien lortu zuen proiektua, 45 boto (%17,57) hilerrri pareko kaleko asfaltoa konpontzea proposatzen zuena izan zen.

Aurrekontu parte hartzaileak sustatzen dituen taldeak jakinarazi duenez, irurtzundarrek herri kontsulta erabili dute 49 proposamen egiteko eta auzoetan eta kaleetan dauden arazo txikien berri jaso dute horrela. Horiek guztiak udalari jakinarazi dizkiote. Aurrekontu txikia eskatzen duten lanak udalak berak egingen ditu.

Proiektua

Herritarrek aukeratutako proiektu horren bidez SL-NA 138 ibilbidea, Saien balkoia delakoa, berriro homologatzea eta Irurtzun eta Latasa herriak lotuko dituen beste ibilbide bat sortzea aurreikusitak da: Ergako bira. Bide berri hori, Plazaola aparkalekutik abiatuz, SL-NA 138 tokiko ibilbidea hartuta Trinitate-rantz joko du, ondoren ermita-rantz desbideratuz. Erga mendi gaineko ermitatik Latasaraino jaitsiko da, handik, Arrantzaleen



Korrikalaria Ergako kronoigoerako helmugara iristear. Behean Irurtzun. ARTXIBOA

LEHEN AUKERAK BOTOEN %39,45 JASO DITU. ONDORENGO HIRUEK: %21,87, %20,31 ETA %17,57

bidea hartu, Orazulotik pasatu eta abiapuntura iristeko. Dagoeneko Bi ahizpeko jaitsierako lanak eginak daudela jakinarazi du Aitor Larraza Carrerak.

Hori egiteko eta gehiagorako ematen du 70.000 euroko aurrekontuak. Baina alkateak argitu duenez, "ez du ematen lehen bi proiektuak egiteko, hau da, mendiko bidea berritu eta barraketarako esparrua asfaltatu edo hormigoiztatzeko". Horregatik, Irurtzungo Udalak erabaki du "lehen proiektua indartzea eta beste lan batzuk gehitzea. Esaterako, Plazaola bide berdeko ibilbidean hiru atsedengune sortzea, autokarabanendako gunean tren geltoki jolastokia egitea, aparkalekua konpontzea, ur biltegirako bidea asfaltatzea (3 edo 4 metro zabal) eta ur biltegi zaharraren gainean begiratokia bat egitea".

Aukeratutako proiektuak

- **2011** Erreka eta Bi Haizpetako inguruak aisiarako berreskuratu.
- **2012** Espaloiak eta seinaleak errespetatu.
- **2013** Igerilekuetako instalazioak hobetu.
- **2014** Atakondoako aldagelak.
- **2015** Karpa.
- **2016** Anbulantziatarako sarbidea egokitzea.
- **2017** Plazako zoria eta harmailak konpontzea.
- **2018** Igerilekuetako berdeguneak eta sarrerako hurbiltzea konpontzea.
- **2019** Igerilekuetako aldagelak konpontzea.
- **2020** Atakondoan patioan jolas-parkea jartzea.
- **2021** Pandemiagatik bertan behera.
- **2022** Mendiko ibilbideak berritzea, begiratokia egitea eta Plazaolan atsedenguneak.



Udalak zaharberritu nahi duen eraikina.

Udal eraikin bat, erabilera emateko makina bat ideia

Uharte Arakilgo Udalak mojek erabili zuten eraikina zaharberritu nahi du. Herritarren iritziak jaso ditu

UHARTE ARAKIL

Errekabitarte kalearen 3. zenbakiak, Sakanako Autobiarako (A-10) ekialdeko irteera daraman bidegurutzean, Uharte Arakilgo Udalak bere jabetzako eraikin bat du. Garai batean mojek erabili zuten eraikina, hain zuzen ere. Gaur egun han Correosen bulegoa, elikagai bankua eta telekomunikazio gela bat daude. Gainera eraikinak udal ikastaroak hartzen ditu (yoga, gimnasia...) eta erraldoi konpartsari aterpea ematen dio. Ludoteka hartu zuen. Bestetik, eraikina, herriko hainbat talderen egoitza ere bada: Galtzorraz dantza taldeak han egiten ditu entseguak, zantantzarrak han du aterpea. Gainera, gazteek beraiendako txoko bat nahi dute. Emakumezkoen taldeak bere ekarpena egin du. Musika talde pare bat lokal eske ari dira...

Horreguztiaren jakitun, Uharte Arakilgo Udalak uhartear "denendako gune bat" eraiki nahi du. Eraikinari buruz herritarren iritziak ezagutzeko asmoz, udalak bilera deitu zuen apirilaren 27an. Txomin Uharte Baleztena alkateak azaldu duenez, "hiruzpalau kolektiboetako ordezkariak agertu ziren. Beste batzuen falta sumatu genuen. Hala ere, e-posta eta beste modu batzuen bidez ere ekarpenak jaso ditugu". Ekarpene gehienak jasota dituzte dagoeneko eta haiekin memoria bat osatuko du udal arkitektoak. "Garagartzaroaren 9rako egina egon behar du, dirulaguntza deialdi batera aur-

keztu behar baitugu. Gure eskaera onartuko balute, behin betiko proiektua egin beharko genuke eta, orduan ere, herritarrengana eta kolektiboengana joko genuke", azaldu du Uhartek. Dirulaguntza jasoz gero ere, luze joanen litzateke hasterako, baina 2026rako despidituta beharko luketela azaldu du alkateak.

Udalaren helburua litzateke "eraikina zaharberritzea energia gutxiago kontsumitzeko eta espazioa erabilgarria izateko, lekua eta ingurua itxuratzeko", argitu du alkateak. Horregatik, eraikinen energia zaharberritze dirulaguntza batera aurkeztuko dute memoria. "Hainbat gauza egiteko aukera ematen duen espazio bat nahi dugu", gaineratu du.

Eraikinaz

Udalak, hezkuntza helburuekin erabiltzeko baldintzarekin, Damas de la Paz del Apostolado de Jesus mojei lursaila utzi zien 1964an. Han eskolaurreko klaseak hartu zituen eraikin bat jaso zen. Uharten eskola publikoa eraiki ondoren, mojek, Caritasekin batera, hezkuntza bereziko beharrik zituzten haurrendako zentroa sortu zuten 1977an. 6 eta 12 urte bitarteko haurrak hartu zituen Aralarko San Migel zentroak. 1997an itxi zituen ateak. Udaletxea berritzea lanak zirela eta 2002 eta 2004 urteen artean udal bulegoak han izan ziren. Eta 2008ko maiatzaren 20ko bilkuran udalak eraikinaren itzulketak akordioa onartu eta bere eskutara pasa zen.



Haur eskolen duintasunaren aldeko sinadurak biltzeko mahaia Altsasuko azokan.

Haur eskolen grebari bultzada

Mugagabeko greba hasi duten 43 haur eskolei beste haur eskola batzuk batuko zaizkie astelehenean. Mobilizazioak ere iragarri dituzte. Larunbatean, 13:00etan, Iruñeko Baluarteko zabalgunetik manifestazio zaratatsua abiatuko da

DUELA 25 URTE...



Garraxi Irratia emititzen

Altsasuko Gazte Asanbladaren baitan irrati libre baten beharra urte eta erdi lehenago mahaigaineratu zen. Egitasmoa aurrera ateratzeko dirua behar eta bi eguberrian festak antolatu, Zor-dian kontzertua eta hainbat zozketa egin zituzten. Azpiegitura jartzeko Gasteizko Hala Bedi eta Iruñeko Eguzki irrati libre eta teknikarien laguntza izan zuten. Behar zen gutxieneko tresneriarekin hasi zen irrati emititzen eta programazioa ontzen ari ziren. Ordutik FMaren 101,9an entzun daiteke.

LAKUNTZA / ARBIZU / ALTSASU

Nafarroa 0-3 plataformaren deialdiari jarraituz, herrialdeko 103 haur eskoletatik 43tan greban daude astelehenez geroztik. Horien artean dago Arbizuko Kattuka haur eskola. Eta greba deialdiaren erregistroarekin atzeratu diren haur eskoletan heldu den astean ekinen diote grebari. Altsasuko Txirinbulo haur eskolako langile batzuk hala eginen dute. Erriberako hainbat haur eskoletan greba mugagaberik eginen ez badute ere, astero egun jakinetan lanuzteak iragarri dituzte langileek, baita mobilizazioak ere.

Lanuzte horrekin haur eskoletako langileek beraien lan baldintzak eta eskaintzen duten zerbitzuarenak hobetu nahi dituzte. Horretarako, eskatzen dute hezitzaile bakoitzak haur gutxiago zaintzea, hau da, ratioak jais-

tea Europako bikoitzak baitira. Bestetik, soldatak eta lan baldintzak duintzeko neurri zehatzak eskatzen dituzte. Eta, azkenik, 0-3 zikloa, 3 eta 6 urte arteko zikloa bezala, doakoa izatea eskatzen dute.

Greba bertan behera uzteko 0-3 zikloa aztertuko duen mahai tekniko bat eratzea nahi dute grebalariek. "Kide aktibo izanaren garen negoziazio mahai bat eratzea nahi dugu, gure aldarriak mahai gainean jartzeko. Mahai horrek helburu jakinak izan beharko lituzke, eta egutegi bat, konpromisoak bete daitezten. Mahaia eratu arte grebarekin segituko dugu", azaldu du Eider Garde Mazkieran plataformako kideak. Joan den astean eratu-tako mahaiaren, momentuz, Hezkuntza eta Lurralde Kohesio departamentuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa daude. Azken horrek plataforma mahaiko kide aktibo izatea nahi du, ez ordea gobernuak.

Eragina

Gardek azaldu duenez, gurasoen artean "denetarik" dago, baina "gurasoek ulertu dute gure aldarriak ez direla gure lan baldintzen aldekoak bakarrik, 0-3 zikloko bizi baldintzak eta zerbitzuaren kalitatea hobetzea badirela ere". Grebarekin batera langileei gutxieneko zerbitzuak ezarri zaizkie langileei. Arbizuko Kattuka haur eskolan pedagogia arloko langileen erdiak egon behar du lanean eta zerbitzu anitzetako %100ak. "Gurasoek erantzun ona izan dute eta gutxi dira haurrak ekarri dituztenak. Eta ekarri behar badituzte, haurren erreferentia dagoenean ekartzeko eskatu diegu", azaldu du Gardek. Altsasuko Txirinbulo haur eskolan bina hezitzailek eta garbitzailek hasiko dute greba. Beste bi hezitzailek eta garbitzaile batek ez dute bat eginen. Hori dela eta, udalak erabaki du grebalarien gelak ixtea eta lanean segitzen dutenena zabalik mantentzea. Gainera, zuzendariari %50eko gutxieneko zerbitzuak ezarri dizkiote. Guztia jakitun izan ondoren, guraso batzuk kexu

"PLATAFORMARI EZ DIOTE ZILEGITASUNIK EMATEN. GERO ETA HASERREAGO GAUDE LANGILEAK"

azaldu dira gela batzuk zabalik daudela eta besteak itxita eta itxiera txandakatzeko proposatu dute. Baina langileen lan eta grebarako eskubideekin talka egiten du eskaerak. Uharteko Arakilgo Pausoka haur eskola "oraindik ez da batu borroka honetara".

Gutxieneko zerbitzuak

Grebalariek "bagenekien arazoak sortuko zirela gutxieneko zerbitzuak ezartzerakoan, haur eskoletako mugagabeko grebaren aurrekaririk ez dagoelako Nafarroan". Izan ere, federazioak udalei bidali dien agirian "puntu guztiak irakurritatik ulertzen da langileak ezin dugula grebarik egin, zerbitzua eskaini ahal izateko %100 beharrezkoak gara". Horregatik, udal batzuk %100eko gutxieneko zerbitzuak jarri dituzte. "Horrela, langileen greba eskubidea ukatzen da". Beste udal batzuk langileen erdia eskoletan egotea eskatu dute. "Eskola jasotzeko familien eskubidea bermatzen da, greba eskubidea ere, baina haur eskolan dauden bitartean umeen gutxieneko bizi baldintzak ez dira errespetatzen, ratioak bikoizten direlako. Edo Europako ratioak laukoiztu". Beste udal batzuk eskolak itxi edo unitate batzuk istea erabaki dute. "Horrela ahalbidetzen dute umeek gutxieneko batekin harretan jasotzen du, langileen greba eskubidea errespetatzen da, baina ez familien zerbitzurako eskubidea". Gardek esan duenez, "argi gelditzen da urte guztian gutxieneko zerbitzuan ari garela lanean".

Mobilizazioak

Nafarroa 0-3 plataformak larunbatean, 13:00etan, Iruñean manifestazioa deitu du. Horretaz aparte, astelehenean Hezkuntza Departamentuaren aurrean kontzentrazioak eginen dituzte. Eta ostegunetan Nafarroako Parlamentuan bilkura dagoela baliatuta elkarretaratzeak eginen dituzte 08:30ean, 11:00etan eta 16:00etan. Beste ostegunetan eskualdeetan mobilizazioak egiteko baliatuko dituzte. Esaterako, asteazkenetan Altsasuko azokan sinadurak biltzen hasi dira.

Bestetik, Parlamentuan mozioa aurkeztu zuten Geroa Baik, EH Bilduk eta I-Ek ostegunetan. Nafarroa Sumaren eta PSNren kontrako botoekin mozioa ez zen onartu. Udaletan, ordea, bai.

Kultur guneko barne argiztapena berrituta

Eraikina 2003an zabaldu zenetik bonbilak eta fluorezenteak zeuden. Egokitzapen lanen ondoren aurretik zeuden argiak kendu eta LED argiengatik ordezkatu dituzte. Udalak, bestalde, kale argiteria berritzeko dirulaguntza jaso du

ALTSASU

Udal eraikinen Energia Aurreztu eta Eraginkortasunerako Plan Zuzentzailearekin Altsasuko Udalak bere jabetzakoak diren eraikinen energia eraginkortasuna hobetu nahi du. Planari segituz, udalak Iortia kultur guneko barruko argiztapena berritu egin du eta lehengoak LED argiengatik ordezkatu ditu. Horrekin batera, aireztapenean bero berreskuragailu bat jarri du udalak. Lanak 33.122 euroko (BEZ kanpo) inbertsioa eskatu dio udalari. Lan horiek egiteko Altsasuko Udalak 12.366,37 euroko dirulaguntza jaso zuen Lehendik dauden eraikinen birgaitze energetikorako jarduketarako laguntzen programatik, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) kofinantzatua eta Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuak kudeatzen duena.

Bestalde, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF)



Iortia kultur guneko barne argiztapen berria du. ARTXIBOA.

kofinantzatu eta Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) kudeatzen duen *Lehendik dauden eraikinen birgaitze energetikorako jarduketarako laguntzen programaren* bitartez 244.976,97 euroko diru-la-

guntza jaso du Altsasuko Udalak. Diru hori argiteria publikoaren berrikuntzaren bigarren fasera bideratuko du udalak, hau da, 663 LED argi jartzera. Lana enpresen elkarte batek egingen du 355.381 euroren truke.

Udalak eta Amandreko garajeetako jabeak ados

Plaza osorik berritzeko pausoa da. Lurpeko garajeen sabaia konpondu eta plazako zorua berrituko da

ALTSASU

Amandrea plaza osorik berritzeko beste pausoa bat eman da: Altsasuko Udalak eta plazako garajeetako jabeekideen komunitateak hitzarmena sinatu dute. Horren arabera udalak kudeatuko du obra kontratatzeke espeditatea. Aldeek egin beharreko lanak eta haien aurrekontuak ere zehaztu dira hitzarmenean. Alde batetik, garajeetan dauden ur sartzeak eragozteko garajeen estalkia iragazgaitz bihurtzeko lanak egingen dira. Haren ardura komunitateak hartuko du. Bes-

tetik, gaur egun plazako zoladurako hormigoia oso hondatuta dago eta hura berrituko du udalak. Horretarako, kultur guneko pareko zabalgunearen moduko zoladura jarriko du. Garajeetako sabaia eta urak kalte-tutako guztia konpontzeko komunitateak 159.776,76 euro ordainduko du. Udalak zorua berritzeko 313.374,63 euro ordainduko du. Diruzaintzako gerakinarekin finantzatu du lana udalak. Guztira 473.151,39 euroko inbertsioa da. Lanak uda ondoren hasia aurreikusten da.

Arkitekto tekniko edo aparejadoreen zerrenda osatzera

Lehiaketa oposizio bidez, Sakanako Mankomunitateak bere zerbitzura dagoen arkitekto tekniko edo aparejadore lanpostua betetzeko lan poltsa bat eratu nahi du. Hautaprobea gainditzen dutenekin sortzen den lan poltsako hautagaiekin laneko bajen ondorioz behin behineko ordezkapenak egin nahi ditu Mank-ek, edota oporrak eta Mank-eko zerbitzuak indartzeko unean uneko beste edozein behar betetzea. Deialdian parte hartu nahi dutenek lanpostuari dagozkion ikasketak eta euskara C1 hizkuntza ezagutza izan behar du. Interesa dutenek beraien eskabideak maiatzaren 14ko 23:59ra arte aurkeztu ditzakete.

Euskarazko ikastaro teknikoetara joateko dirulaguntzak

Ikasketa ofizialak eta arautuak ez diren saioen parte hartzaileendako da. Eskabideak, abenduaren 31ra arte

SAKANA

Euskara Zerbitzuaren bidez, Sakanako Mankomunitateak euskarazko ikastaro teknikoak edo hizkuntza minorizatuari buruzkoak egin dituztenendako dirulaguntza diru, beti ere, saioak aurten egiten badira eta honako bi baldintzak betetzen baditu: edozein gairi buruz euskaraz egindakoak izatea eta euskararen edota hizkuntza gutxituen normalizazioarekin edo soziolinguistikarekin zerikusia dutenak izatea. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak deialdi horretarako 500 euroko poltsa du. Hala ere, dirulaguntzen onuradunek ezin izanen dute 200 euro baino gehiagoko laguntzarik jaso deialdi bakoitzeko.

Dirulaguntzan interesa duenak Sakanako Mankomunitatearen eskabide ofiziala betetzearekin batera, honakoak aurkeztu beharko ditu: nortasun agiriaren kopia, erroldatze ziurtagiria, asistentzia ziurtagiria, matrikularen ordainagiria eta aitortpena, helburu honetarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza guztiena. Adierazi beharko da eskab-



Mankomunitatearen egoitza.

rak ebazteke edo ebatzita dauden; azken kasu horretan, kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia erantsiko da. Dokumentazioa Sakanako Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan edo haren erregistro elektronikokoan aurkeztu beharko da. Eskabideak honako baldintzak bete beharko dituzte ibarreko erakundearen laguntza jasotzeko: ikastaroaren %80an parte hartu duela frogatzea, Sakanan erroldatuta egotea eta Sakanako Mankomunitatearekiko zerga betebeharrak ordainduta izatea.

TXARTEL
WWW.TXARTEL.NET

Garraio kostea doan
60€tik gorakoetan
Prezio guztiak BEZ barne

Stock denbora errealean
Entrega epea
24 orduetan,
17:00ak baino
lehen eginda

948 564 002
txartel@txartel.net

Berritasunak pago zutitzean

Makina bat etxarriarren aurrean jaso zuten igandean maiatza Hartzabalaren. Langintza horretarako 15 minutu eskas behar izan zituzten. Egunak bi berritasun utzi zituen: moztu ondoren pago enborra Hartzabalera eraman eta hura jasotzeko lanetan estreinakoz emakumezkoek parte hartu zuten. Gainera, jasotzaileen artean ere belaunaldi aldaketa izan zen.



Lehenengo maiatza, zutik

Maiatzaren batarekin batera urteroko ohitura berri zuten bakaikuarrek: pago enborra Hartzabalaren zutitzea. Lehenik Idoitxarren aukeratutako pagoa moztu eta hara eraman behar izan zuten. Eguraldia lagun mendi gainean jendea poliki bildu zen. Jendea, dron bat eta parapentean zebiltzan hiruzpalau izan ziren jasotzearen lekukoak.



Plaza erdian dago maiatza

Iturmendiarrek 29 metro luzerako pago enborra zutitu zuten igande arratsaldean herriko plazan. Jasotze lanak ikusteko makina bat jende elkartu zen. Ohi bezala, udalak auzatea eskaini zuten eta herriko dantzari txikiak dantza saioa eskaini zuten. Aurtengo zazpi kintoena izan da ekartzeko ardura. Salmentakako dirua haiendako izanen da.



UTZITAKOIA

Bi maiatzak zutik daude

Ziordiarrek bi maiatza jaso zituzten igandean. Aurrenekoa Urbasako malkor gainean jaso zuten lehenik, eta atzenekoa, berriz, herriko Txipudia parkean. Egin beharrekoak despedituta Errekakartea elkartean herri bazkaria izan zen. Mahaiaren inguruan 63 pertsona elkartu ziren eta giro ederrean despeditu zuten igandea.



Langileen Egunean bi mezu zabaldu ziren Altsasutik

Batetik, LABek egindako deialdiaren bidez. Bestetik, Sakanako Kontseilu Sozialistarena

ALTSASU

Langileen Eguna zela eta, Altsasun bi manifestazio izan ziren igandean. LABena izan zen lehenena. LABetik nabarmendu zutenenez, "dagoen arazoa betikoa da: egungo sistema sozial eta ekonomikoa ez da bideragarria, porrot egin du. Energia eta materialak agortzen ari dira, klima larrialdia areagotzen ari da. Ondorioz, gerra militar eta komertzialak areagotu dira". LABetik adierazi zutenenez, "aberastasuna bada, baina kapitalistek metatzen dute, langileei lapurtuz". Soldadak begirata "txiroagoak" garelako azaldu zuten. Egungo ereduaren "banaketa ankerraren" adibide honakoak dira: "zerbitzu publikoek ez dituzte herritar guztien osasuna, hezkuntza eta etxebizitza beharrak asetzen. Bizitzari eusteko beharrezkoak diren zaintza lanak emakumeen bizkar segitzen dute".

Sindikatu abertzaleko bozera-maileak gogorarazi zuten aurten bi urteurren nabarmen daudela: Amaiurko gazteluaren erresistentziaren 500. urteurrena eta Nafarroako Foru Hobekuntzaren 40. urteurrena. "Garaia iritsi da hemen egiteko 78ko erregimenaren barruan egin ezin daitekeena. Euskal Herritik alternatibak eraiki behar dira". Eta honakoak zerrendatu zituzten: gizarte segurantzaren propioa, langileendako euskal estatutua eta zaintzen, lanaren eta aberastasunaren banaketan oinarritutako eredu sozioekonomikoa. Ho-

rretarako burujabetza aldarrikatu zuten.

Maiatzaren Leheneko bigarren manifestazioa Sakanako Kontseilu Sozialistak (KS) deitutakoa izan zen. Manifestazioaren akaberan bozera-maileak adierazi zutenenez, "egungo egoera ez da batere atsegina langileriarendako. Ekonomia krisi kronikoa bizi du kapitalismoak, eta langileria albo kalteak pairatzen ari da". Adierazi zutenenez, albo kalte horiek lirerateke: oinarritzko askatasunen ezabatzea, lan munduaren esku-bide eza, langabezia eta oinarritzko behar izan ezin asetzea. "Funtsean, proletarioaren akaberan legez kanpokotzat jo du burgesiak". Ezker parlamentarioari "egoera horren kontra ezer ez egitea" leporatu zion KS-k, "proletarioa engainatzen aritzen dira, ogi apurrak garaipe handiak balira bezala saltzen dituzte".

Sozialismoa eraikuntza "gizatasuna berreskuratzeko eta ongizate unibertuala jauzi egiteko baldintza" zela adierazi zuten. Horretarako, "beharrezkoa da langileok gure behar eta premien arabera jardutea, eta etorkizuneko jendartea gaurdanik eraikitzea". Konpromisoa hartzeko eta nork bere ekarpena egiteko deia egin zuten. KS-tik azaldu zutenenez, "langileria eta sozialismoa elkartu ezean, identitate soila bihurtzen da lehenengoa eta utopia eginezina bigarrena". KS- langileria eta sozialismoa elkarteko ekarpena eginen duela adierazi zuten.

Altsasuko auzia bi milagarren egunera iritsiko da bihar

Udaletxe parean dagoen kontagailuak egunero egiten du aurrera eta larunbatean 2000 zenbakira iritsiko da. Altsasuko auziarekin lotuta Guardia Civilak egindako lehen atxilotetarik pasa diren egunak dira. Herriko taberna batean 2016ko lastailaren 15eko goizaldean izandako istilu baten ondoren azkenean zortzi altsasuar auzi-

petu zituzten. Haietako bik, Ainarak eta Iñakik, dagoeneko zigorra bete dute. Ainarak kartzelatik pasa gabe, baina hainbat kontrol neurriekin eta Iñakik 1.283 egun egin zituen zigorpean, 598 kartzelan. Gainontzeko seiak auzipetuak hirugarren graduandaude, ez dute kartzelara joan beharrik baina kontrol telematikoa dute. Aratzek garagarrilean bukatuko du zigorra, Adurrek, Jokinek eta Oihanek 2024ko maiatzean eta Jonanek eta Julenek 2025eko lastailean.



Gurdia konpostez betetzen. Zakuak eskuko palarekin bete behar dira.

Konpost gurdikadak eramateko aukera ere badago

Arbizuko Utzubar EKO guneko bulegoetatik pasa behar da lehenik, astegunetan 08:00etatik 15:00etara

SAKANA

Baratza eta sorotako lurra ongarrizteko konposta erabili daiteke. Baita etxeko lore ontziak edo lorategietarako. Edota herrietako berdeguneak eta zuhaitzak ongarrizteko. Konposta horretarako erabiltzea egokia da. Gainera, Sakanako Mankomunitatearen Utzubar EKO gunean egiten den konpostak A kalifikazioa jaso du eta horrek nekazaritza ekologikoan erabiltzeko modukoa bihurtu du. Joan den urtean konpost planta zabaldu ondoren, konpost kantitate handia sortu dute eta sakandarrek urte guztian hura mugarik gabe har dezakete: etxerako zaku bat edo batzuk, edo baratze edo sorotarako gurdikadak. Horretarako, Utzubar EKO guneko bulegora joan behar da lehenik. Konposta hartuko dela jakinarazi eta hura nondik har daitekeen gazi gatzatuko dute Mank-eko langileek. Hartu ondoren zenbat hartu den esan eta etxera edo baratzerara bueltatzeko aukera izanen da. Konposta hartzeko gurdia edo zakuak eraman daitezke. Eta zaku gehiago behar izanez gero han bertan ematen dituzte.

Hondakin Zerbitzuko hezitzaile Amaia Okariz Ormaetxeak gogorarazi konposta etxean egiteko aukera ere badagoela. "Horretarako beharrezko materiala (konpostagailua, kuboia eta aireztagailua) Arbizuko Utzubar EKO gunean dago. Interesa dutenei informazioarekin batera ematen diegu". Okarizek gazi-

gatu du Irurtzunen eta Altsasun auzokonpostagailuak daudela eta "auzokideekin batera konposta egiteko aukera baliatu nahi dutenek 900 730 450 telefonora hots egin edo info.hondakinak@sakana-mank.eus posta elektronikora idatzi behar dute".

Lehengaien berrerabilpena

Okarizek ohartarazi duenez, "gure lehengaiak agortzen ditugun bitartean, zaborteziak hondakinez betetzen ditugu. Europak, Zuzentarau berrien bidez, zirkulu ekonomia bultzatzen ari da: hondakinen murrizpena, berrerabilpena eta birziklapena bultzatuz, hondakinak lehengai bihurtuz". Sakanako Mankomunitatea zirkulu ekonomian aitzindaria dela nabarmendu du hezitzaileak: ibarreen sortzen diren etxeko hondakinen %56 batz besterik ez diren hondakinen gainontzekoa hondakindegian bukatzen du. "2025erako Europak eskatzen duen materialen berreskurapen maila dagoeneko, gaur egun Sakana gehienez gaitzen da. Arrakasta honen gako nagusia Sakanako sukalde eta lorategi gehienetan egiten den elikagaien eta landare hondakinen bereizketa izan da. Izan ere, Sakanan bihondakina bereizita kudeatzen baitugu". Atez ateko bilketa sistemaren bidez eta Altsasun eta herri txikietan ekarpen etxoletan dauden 5. edukiontzi marroietan jasotako materia organikoa, inausketekin batera, konpost bihurtzen dela azaldu du.



Aritz Romeo Ruiz eta Aitor Larraza Carreraren esanek interesa sortu zuten alderdien artean. NAFARROAKO PARLAMENTUA

Bide berdeendako legea eskatu du Plazaolak

Turismo partzuergoak Nafarroako Parlamentuan egin zuen eskaera. Haren bidez mantentze lanei buruzkoak eta erantzukizunei buruzkoak zehaztu nahi dituzte. Izan ere, gaur egun ez baitakite zein lan dagozkien toki erakundeei eta zein gobernuari

ARAKIL / IRURTZUN

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Enpresa Garapenerako Batzordearekin lan bilkura izan zuten Plazaola turismo partzuergoko eta Ederbideako ordezkariak. Lesakako alkate Ladis Satrustegui Alzugarai, Baztan-Bidasoako turismo teknikari Irantz Pastor Ordoki, Plazaola turismo partzuergoko gerente Gustavo Ortiz de Barron, partzuergoko presidente eta Irurtzungo alkate Aitor Larraza Carrera eta partzuergoak kontratatutako lege aholkulari Aritz Romeo Ruiz izan ziren bileran.

Larrazak azaldu duenez, "Plazaola bide berdea hainbat herri-tatik pasatzen da. Haren egiturazko eta prebentziozko mantentze lana egin behar da. Hori egiterakoan arazo pila sortzen dira ardurak zehaztuta ez daudelako. Bidean arazoa sortzen denean zeini dagokio hura konpontzea? Kontzejuari, udalari edo gobernuari?" Kezka horregatik Plazaola eta Ederbideako

arduradunek natur bide eta bide berdei buruzko lege ikerketa egitea erabaki zuten. Hura Romeok egin du eta Parlamentuan ostiralean aurkeztu zuten.

Helburuak

Lege ikerketan jaso dute bide horiek Nafarroa nola dauden araututa eta gainontzeko erki-degoetako legeekin alderatu dituzte. Larrazak esan duenez, "Nafarroako Gobernu turismo eta mugikortasun jasangarriaren aldeko ahalegin ekonomiko handia egiten ari da. Apustu garrantzitsua da. Baina nahiz eta eskumen historikoa izan, ez dago inolako araudirik". Plazaolako presidentek azaldu duenez, hiru helburu lortu nahi dituzte. Ba-

"NAFARROA TURISMO ETA MUGIKORTASUNEAN APUSTU HANDIA EGITEN ARI DA, BAINA EZ DAGO LEGERIK"

retik, bide naturalak eta bide berdeak arautuko dituen lege bat izatea. "Gaur egun bakarren bat eroriko balitz, bidearen zatiaren arabera, ardura kontzeju batena, udal batena edo gobernuarena litzateke", argitu du Larrazak. Legeak, beraz, erantzukizun zibila zehaztu beharko luke. Baita mantentze lanen ardura zehaztu ere. "Toki erakundeok garbiketa eta sasitza kendu beharko genuke, baina bidearen aurre mantentzea, egiturazko mantentzea, Nafarroako Gobernuarena izan beharko luke. Jakina, horrek askoz ere aurrekontu handiagoa eskatzen du".

Ederbidea eta Plazaolakoei aurkeztutako txostena hautsa jaten ez gelditzeko neurria ere proposatu zuten. "Legea egin eta onartu bitartean proposatu dugu Nafarroako Gobernuaren eta toki erakundearen artean hitzarmenak sinatzea, lehen aipatutako arazoak saihesteko. Gainera, legea Nafarroa guztirako izatea nahi dugu", azaldu du Larrazak.

FESTAK

ITURMENDI

SAN MIGEL FESTAK

MAIATZAK 6 ostirala

22:00 Herri afaria: entsalada epela, haragi gisatua, gazta tarta, kafea eta kopa, plazan.

Ximonena Gaztetxeak antolatuta. Izena emateko zerrendak elkartetan daude.

00:00 Kontzertuak: Katez, Arene 6 eta DJ Morti, gaztetxean.

Ximonena Gaztetxeak antolatuta.

MAIATZAK 7 larunbata

12:00 Meza, elizan.

12:45 Galar Zendeako

Abesbatzaren kontzertua, elizan.

13:00 Haurrendako jolasak, plazan.

13:30 Auzatea, plazan.

18:00 *Brotos de Encina* dantza ikuskizuna, plazan.

20:00 Auzatea, plazan.

20:00-22:00 eta 00:30-03:30

Dantzaldia Gabenara taldearekin, plazan.

ALTSASU

ALDE ZAHARREKO FESTAK

UDALAREN EGITARAUA

MAIATZAK 7 larunbata

11:30-13:30 Altsasuko Erraldoi eta Buruhandiak Altsasuko eta Etxarri Aranazko gaiteroekin Intxostiapuntatik Foru plazara.

12:00 eLe Festa: Euskal berriei aitortza, mintzodromoa, haurrendako tailerrak, auzatea eta Kidam magoa. Foru plazan.

17:00-19:00 Ludoteka eta Gaztetxokoa plazara!: Ginkana, tailerrak, jolasak... Foru plazan.

18:00-20:00 Lentzeria ikastaroko lanen erakusketa, Gure Etxean, 20:00-22:00 eta 24:00-02:00 Café Irlandes taldearekin dantzaldia eta erromeria, Foru plazan.

MAIATZAK 8 igandea

10:45 Altsasuko Udaleko

Udalbaltzaren irteera, Altsasuko

Txistulariak elkartearekin,

Otadiako Kristo Deuna basilizara.

10:00-14:30 Lentzeria ikastaroko

lanen erakusketa, Gure etxean.

10:30-14:30 Artisau Azoka eta Taloak, Foru plazan.

11:30-13:00 Dantzari Txiki

Eguna, Intxostiapuntatik lortia zabalgunera.

Irurtzungo Orritz Dantza taldea, Urretxuko Lurra Dantza Taldea eta Sakanako Etorrizuna Dantza taldea

17:00 Pilota Jaialdia. *Eskerrik asko Oinatz!* Benegoetxea VI pilotariari omenaldia, Burunda frontoian.

Antolatzailea: Pilotajauko Kirol Kluba.

Laguntzailea: Altsasuko Udala

18:30 Haize Berriak Banda

Altsasuko Musika eskolaz lagunduta, lortia zabalgunean.

ALTSASUKO GAZTETXEAREN EGITARAUA

MAIATZAK 4 asteazkena

19:30 Asanblada, gaztetxean.

MAIATZAK 6 ostirala

17:00 Haurren txokoa, Foru plazan.

18:30 Txokolatada, Foru plazan.

19:00 Euskalgintzaren

Konseiluaren elkarretaratzea, udaletxearen aurrean.

19:30 Pintxopote finala, gaztetxean.

22:00 Bertso afaria: Maite

Garmendia, Aitor Irastorza eta

Gorka Pagonabarragarekin,

gaztetxean.

MAIATZAK 7 larunbata

12:00 Mintzodromoa, Foru plazan.

12:30 Sokatira txapelketa, Foru plazan.

15:00 Bazkaria, Zelandin.

18:00 Eztanda txaranga, plazatik

21:30 Magrak, gaztetxean.

22:00 Urkabe eta Kokonut taldeen kontzertuak, gaztetxean.

03:00 Magrak, gaztetxean.



ARTXIBOA

ALTSASU Artisau azoka.

Artisauak: Ehoziriak; Amillano, Gaztak; Alejandro Rellán, Makuluak; Juan Manuel Herrero, Buruhandi tailerra; Aritz Asgorreta eta Mikel Zalba, Boj goilarak; Zura lanketa eskola; Asier Crespo, Larrua: Itziar Nazabal, ehun margoa; Iñaki Villanueva, Zura lanketa; Jose Luis Etxeberria, Saskigilea; Ramón Paniagua, Momotxorroak; Taloak; Artilezko nomadak, Artilea; Jesus Mari Olmos, Zura lanketa; Ion Dufurrenea, Kaikuak; Miguel Ángel Arriaga, Zesta punta; Carmelo Llena, Pilotak, eta Álvaro Garcia, Zeramika.

Altsasuko Udalaren oharra

Altsasuko Udalak herritarrak eta bisitariak festaz gozatu ahal izateko arduraz kontsumitzeko deia egin du. Eta beste behin gogorarazi du, batetik, etxeko eta familiako ardurak denondako direla. Eta bestetik, ezezkoak ezetz esan nahi du beti eta, beraz, erasorik ez duela nahi nabarmendu dute. Azkenik, Altsasuko Udalak jakinarazi duenez, Gartzia Ximenez oinezkoendako izanen da larunbatean 12:00etatik 21:30era eta domekan 10:00etatik 15:00etara.

Uhartearrak Aralarra erromerian

San Migel goiaingeruaren agerpenaren eguna da maiatzaren 8a, igandea. Uhartearrak Aralarra santutegira erromerian joaten dira. Goiztiarrenak 09:00etan ekiten diote Aralarra aldapari. Behin goian, Uhartea Arakilgo Udalak herritarrei auzatea eskaintzen die. 12:30ean santutegian meza izanen da. Eta, ondoren, 41 uhartear bazkaltzera geldituko dira. Gaur egun bazkaria aterpean dagoen jatetxeak ematen du, baina, garai batean, herria arduratzen zen bazkaria prestatzeaz.

BiL TOKi
TABERNA • JATETXEA

Egun hauetan bokatak aukeran BARRAN

Telefono berria:
948 562 348 • Altsasu

Kaixo
Kafetegia • Jatetxea

Menua, plater konbinatuak eta ogitarlekook aukeran

Garcia Ximenez 20-22
948 469 124 Altsasu
www.restauranteikaixo.com

ZIUR ZAUDE GURE OGI GUZTIAK EZAGUTZEN DITUZULA?

amayaokindegia.eus

Amaya

OGITEGIA
1964



1. AUTONOMIKOA GIZON.

2. FASEA. 17. JARDUNALDIKO EMAITZA
Artajonés - Lagun Artea **1-0**

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO JAITSIERA	
1	Peña Azagresa 53
9	Lagun Artea 40

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN
17:45 Burladés B - Lagun A. (Ripagaina)

Lagun Artea partida erabakigarria du
Mailari eusteko borrokan, Burladesen kontrako partida erabakigarria da.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

2. FASEA. 9. JARDUNALDIKO EMAITZA
Idoia - Altsasu **4-2**

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. MANTENTZEA	
1	Mulier B 40
9	Altsasu 4

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN
16:00 Altsasu - Mulier B (Dantzaleku)

Altsasuren ligako azken partida
Altsasuk Mulier liderra hartuko du larunbatean, ligako azken partida.

FUTBOL PREFERENTEA

31. JARDUNALDIKO EMAITZA
Etxarri Aranatz - Lagunak B **5-1**

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1	Injerto 73
13	Etxarri Aranatz 33

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN
16:30 San Jorge - Etxarri (San Jorge)

Etxarri, mailari eustera

Kategoriari eusteko borrokan San Jorge mendean hartzea garrantzitsua da.

FUTBOL ERREGIONALA

IGOERA FASEA. 1. KANPORAKETA
Altsasu - Urroztarra **1-0**

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO IGOERA FASEA	
1	Valle de Egés B 6
4	Altsasu 6

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN
16:30 Beti Onak B - Altsasu (Atarrabia)

Altsasu, bigarren kanporaketari ekitera
Altsasuk Beti Onak B taldearen kontrako joaneko partida jokatuko du asteburuan.

Zabaleta vs Altuna, tentsioa Donostian

PILOTA Buruz Buruko ligaxkako azken jardunaldian lau partidetatik bi jokatuko dira, erabakigarriak diren bakarrak. Larunbatean, Donostian, Altunak eta Zabaletak finalerdietara sailkatzea dute jokoan, eta igandean, Bilbon, Jakak eta Artolak

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Buruz Buruko final laurdenetako ligaxka ongi hasi zen baina ez zuen bide beretik jarraitu. Bigarren jardunaldian Jokin Altunak ez zuen Ezkurdiaren kontrako partida jokatu, eskuko minekin zegoelako. Arbizuarrak aitortu zuenez "pena da finalerdietara horrela sailkatzea, kide batek jokatu ezin duelako. Buruz Buruko txapelketa polita da, baina gogorra, zaila eta krudela aldi berean. Horregatik, partida bakoitza mimo handiz prestatu beharra dago". Arbizuarrak hirugarren jardunaldian, larunbatean Labriten Darioren kontra jokatu beharreko partidaren tentsio onak berreskuratu nahi zituen, baina ezin izango du, Dariok ez baitu jokatuko, asteartean Zabaletaren kontra jokatu eta galdutako partida gogorraren ondoren eskuak ukituta dituelako. Hortaz, finalerdietara ligaxkan partida bakarra jokatuko da sailkatu da Ezkurdia.



Zabaletak errebantxa nahi du.

A multzoko finalerdietako beste txartela Zabaletak eta Altunak larunbatean Donostiako Atano III.lean jokatuko duten partidatik aterako da. Azken unera arte kolokan egon da partida, Altunak ostegunean hartu zuelako era-

bakia. Material aukeraketa baino lehen entrenamendu proba egin zuen Altunak, eta jokatzeke moduan dagoela azaldu zuen. Hortaz, larunbatean tentsio handiko partida gogorra espero da Atano III.lean, Zabaleta jotzaile handiaren eta Altuna magoaren artean. Joan zen urtean Altunak Zabaleta txapelketatik kanpo utzi zuen finalerdietan, eta arantzakendu nahi du etxarrendarrak. Jaialdia zabaltzen duen partidaren Ezkurdia ariko da, txapelketako erritmoa ez galtzeko. Arbizuarrak Etxeberria izango du bikote, Irribarriaren eta Bikuñaren kontra.

B multzoan Unai Laso finalerdietarako sailkatuta dago. Beñat Rezustaren kontra jokatu beharra zuen ligaxkako hirugarren jardunaldian, baina sorbaldan mina duelako ez du jokatuko. Erik Jakak eta Iñaki Artolak igandean Bilbon jokatuko duten partidatik aterako da finalerdietako laugarren sailkatua.



Asteburuan Elizondok hartutako partida.

PILOTA II. Nafarroa Foru Komunitatea Torneoa, Arbizon

Goi mailako emakumezkoen esku pilota jaialdia hartuko du Arbizon larunbatean, 17:00etatik aurrera, Arbizonko kiroldegian. Zehazki, II. Foru Komunitatea Torneoko kanporaketa dago jokoan, gazteen eta eliteen mailan. Lehenik eta behin gazteen mailako partida jokatuko da, eta segidan eliteen mailako hiru partidaz gozatzeko aukera izanen dute kiroldegian bilduko direnek. Lehen partidaren Arrizabalagak eta Zabalak Larrarte eta Erasun izanen dituzte aurkari, bigarren Barrokak eta Mendizabal Garairen eta Osesen kontra lehiatuko dira, eta azken partidaren Aldaik eta Mendigurenek Etxegaraireren eta Capellanen kontra jokatuko dute.

Maizak, Benjumeak eta Astizek triatloi denboraldiari ekin diote

TRIAITLOIA Tarragonako Deltebre Triatloi ezagunean lan ona egin zuten hiru sakandarrek



SAKANA IGERIKETA TALDEA

Nafarroako Kirol Jokoak Altsasun

IGERIKETA Larunbatean Nafarroako Kirol Jokoen haurren mailako seigarren jardunaldia jokatu zen Zelandin. Zortzi taldetako 84 igerilari lehiatu ziren guztira, 60 neska eta 24 mutil, tartean Sakana Igeriketa Taldeko zazpi igerilari: Ane Arregui, Iraide Arrizabalaga, Ane Beltran de Heredia, Asier Fernandez, Ane Mendinueta, Lur Sasiain eta Adrian Tome.

Asteburuan 1.000 triatloilari baino gehiago bildu ziren Ebroko Deltan jokatzen den Tarragonako Deltebre Triatloian. Sakana Triatloi Taldeko Felix Benjumeak Half distantzia aukeratu zuen, igeriketa, txirrindularitza eta korrika segmentuak batuta 107,9 km zituena. Sergio Bernalek irabazitako proban (2:24:26) Benjumea hamabigarren sailkatu zuen (4:07:11). Bere taldekide Juan Luis Maizak Short kategorian parte hartu zuen (67,9 km). Roberto Ruizek (Saltoki) irabazi zuen proba (2:11:01), eta Maiza

73. iritsi zen (2:39:08). Bukatzeko, Mikel Astiz (Donibane) Distantzia Olinpikoan aritu zen (49,5 km). Ihabardarra hamabigarren sailkatu zen (1:56:10), Saltokiko Roger Mirabet txapeldunetik (1:51:44) bost minutura.

Garcia laugarren Aozen

Igandean, I. Aoziko Duatloian, Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate altsasuarra podiumera igotzear egon zen, laugarren sailkatu baitzen (1:10:59), Marcos Yaniz txapeldunetik lau minutura (1:06:52).

Amaia Razkin Medranok berriro egin du

MENDI LASTERKETAK Jurramendin bezala, uhartearra bigarren sailkatu zen Nafarroa Extremeko 68 kilometroko emakumezkoetan. Ander Erice seigarren izan zen, gizezkoetan. Eukeni Goikoetxea eta Jabi Gasanz 22 km-ko Top Tenean sartu ziren

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Zubirin jokatuak Nafarroa Xtrem Trailean guztira 1.300 mendi korrikalari zeuden izena emanda. Ez zuen euririk egin, baina korrikalariak garai honetarako temperatura freskoegia eta lohia izan zituzten bidaide. Antolakuntzak hainbat distantziako probak antolatu zituen: 68 km, 35 km, 35 km bikoteka egiteko, 22 km eta 35 eta 22 kilometrokoa elkarrekin egiteko aukera. Halako tamainako proba batek eskatzen zuen bezala, diziplina honetako korrikalaririk onenak bildu ziren.

Distantzia luzeena (68 km) osatu zuten 283 korrikalarien artean Alvaro Ramos Peñak ez zuen aurkaririk izan (6:57:34). Navasfriasko korrikalariak 14 minutu eta 13 segundo atera zizkion Ibarako Goar Lopetegiri. Aipatzeko da ere Ander Erice korrikalari arbizuarrak egindako lana. Seigarren iritsi zen podiumera, irabazletik ia ordubetera (7:50:28). Emakumezkoetan Sara Peña Lizarralde oriotarrak eta Amaia Razkin Medrano uharte arakildarrak lehia polita izan zuten, baina Peñak jantzi zuen txapela (8:36:27), sailkapen absolutuan hemeretzigarren sailkatuta. Razkin bigarren sailkatu zen, Jurramendin bezala, kasu honetan txapeldunetik hamar minutu pasara (8:47:47). Denboraldi bikaina egiten ari da.

35 kilometroko proban 403 korrikalari sailkatu ziren. Iñaki Olano (3:01:32) eta Oihana Kortazar (3:40:04) izan ziren txapeldun handiak. Zazpi sakandar sailkatu ziren guztira, eta Ibon Ubeda etxarriarra (4:25:43) eta Txaro Ondarra bakaikuarra (5:54:17) izan ziren finenak.

35 kilometroko proba bikoteka egiteko aukera plazaratu zuen ere antolakuntzak. 78 bikotek osatu zuten proba, tartean sakandarrez osatutako hiru bikotek. Francisco Javier Barea eta



Amaia Razkin Medrano, Nafarroa Extremen. FILERÓ FILMS

GOIKOETXEAK ETA GASANZEK ZUBIRIN ESPAINIAKO TRAIL RUNNING TXAPELKETA PRESTATU ZUTEN

Raul Guillen izan ziren lehenak (3:31:12), eta Aran Larrañaga eta Patxi Rubio uharte arakildarrak 34. postuan sailkatu ziren (5:03:52).

Goikoetxea eta Gasanz aurrean 22 kilometroko lasterketan 154 korrikalarik lortu zuten proba despeditzea. Iñigo Macias Cipriain (1:58:10) eta Aitziber Mendibil Cortés (2:19:42) gailendu ziren guztien artean, baina aipatzekoa da Dantzaleku Sakana klubeko Eukeni Goikoetxea Larraza (2:04:10) eta Javi Gasanz Barragan (2:06:49) altsasuarrek lan bikaina egin zutela, Top Tenean sailkatu baitziren, bosgarren eta seigarren, hurrenez hurren. Asteburu honetan Eneritz Karasatorre Arañarekin Federazio Autonomikoen Arteko Espainiako Trail Running Txapelketan parte hartzeko bikain etorriko zaie Zubiriko entrenamendua.

Sakandarrak

NX68 km

Gizonak

1. Alvaro Ramos	6:57:34
6. Ander Erice	7:50:28
88. Aitor Salinas	10:00:25

Emakumeak

19. Sara Peña	8:36:27
25. Amaia Razkin	8:47:47

NX35 km

Gizonak

1. Iñaki Olano	3:01:32
143. Ibon Ubeda	4:25:43
224. Gorka D. Ulzurrun	4:45:54
292. Juan Pedro Ariz	5:12:41
338. Emilio Carabias	5:35:37
382. Aitor Etxaniz	6:22:57
383. Raul Mendoza	6:22:58

Emakumeak

360. Txaro Ondarra	5:54:17
--------------------	---------

NX35 Bikoteak

1. F.J. Barea-R. Guillen	3:31:12
34. A. Larrañaga-P. Rubio	4:57:39

39. E. Lasa-A. Markinez	5:03:52
56. X. Torres-M. Arlegi	5:46:03

NX22 km

Gizonak

1. Iñigo Macias	1:58:10
5. Eukeni Goikoetxea	2:04:10
6. Jabi Gasanz	2:06:49
28. Joseba Galarza	2:34:34
29. Ander Iraizoz	2:34:47

*Oharra: Sakandarren baten datua falta izatea gerta daiteke.

Altsasuko Hiru Mendi Zerrak-en txanda

MENDIA Sakanako Ibilaldiari Altsasuko Hiru Mendi Zerrak mendi martxak hartu dio lekukoa. Larunbatean 7:00etan abiatuko dira izena emanda dauden 430 mendizale pasa Urbasa, Altzania eta Aralar lotzeko prest

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Batetik bestera. Aurreko larunbatean Txurregin, Beriainen, Aralarko San Migelen, Madotzen, Larraspilen eta Ergako Trinitatean ibili ziren Iratxok Irurtzunen antolatutako Sakanako Ibilaldian parte hartu zuten mendizaleak, eta bihar, larunbata, Bargagain, Urbasa, Gainsoil, Kipular, Sozarreta, Balankaleku eta Intxusburu gaitutako dituzte Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako Hiru Mendi Zerrak mendi ibilbidean parte hartuko

duzen mendizaleek. Atzo, ostegunean, despeditu zen izena ematea, eta Guaixeko erredakzioa ixteko unean 430 mendizale baino gehiago zeuden izena emanda.

Bi ibilbide, eta tartekoa

Urbasa-Andia, Altzania eta Aralar mendizerrak biltzen dituen Hiru Mendi Zerrak mendi mar-txa, Sakanako Ibilaldia bezala, Euskal Herriko Mendi Ibilbide Luzeen Zirkuiturako eta Nafarroako Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien XIV. Txapelketarako

"Alabarekin, Sakanako Ibilaldia bereziagoa izan da"

MAIDER IRAGI MORENO MENDIZALEA

Iratxoko antolatzaileek nahi bezala, larunbatean Irurtzun mendizaleetaren festa ederra bilakatu zen. Sakanako Ibilaldian parte hartu zuten 1.174 mendizaleen artean Maidar Iragi Moreno irurtzundarra eta bere alaba Jone zeuden.

Aurretik Sakanako Ibilaldiko Ibilbide Luzea egin izan duzu (54 km), baina aurten Ibilbide Motza (25 km) egin duzu. Zer moduz aldatzarekin?

Ongi. Ibilbide Luzea bitan egin izan dut, duela hiru urte eta lau urte, baina aurten prestatzeko denborarik ez nuen. Bestalde, nire alaba zaharrena, Jone, Ibilaldi Motza egitera animatu nahi nuen, ibilbidea elkarrekin egiteko. 13 urte bete ditu eta aurreko urteetan Ibilbide Txikia (14 km) egin izan du, eta Motzerako saltoa egitera

animatu nahi nuen. Kirolaria da, atletismoa egiten du eta ohituta dago kirola egiten eta sufrizten, hortaz saltoa egiteko aukerak ikusten nizkion. Gainera, Ibilbide Motzean, Latasara heltzean, Trinitatea igo beharren, Arrantzaleen Xendatik Irurtzunera zuzenean igotzeko aukera dago, eta oso nekatuta egonez gero, aukera hori gordeta genuen.

Zeinen esperientzia polita alabarekin Sakanako Ibilaldia egitea, ezta?

Bai. Gainera, ibilbidea bukatzea lortu genuen. Banekien luzea egingo zitzaigula, berari batez ere, ez dagoelako hain ohituta, baina aurreko egunetan Gaztelun, Txurregin eta inguruko mendietan ibili zen prestatzen. Larunbatean bere adin inguruko beste kuadrillatxo batekin elkartu zen, bere lehengusu bat



Mendizalea Urbanan, 2019ko Hiru Mendi Zerrak martxan.

puntuagarria da. Bi ibilbide dau-
de: Hiru Mendizerrak Ibilaldi
Luzea (46 km eta 2.700 m desnibel
positiboa) edo Hiru Mendizerrak
Ibilaldi Laburra (26 km, 1.200
metroko desnibel positiboa). Bi
ibilbideetako mendizaleak bate-

ra abiatuko dira Burunda pilo-
talekutik, 7:00etan, eta hasieran
ibilbide berbera dute. Horrela,
mendizaleek Altsasutik Urdia-
nera joko dute, Portuazpitik Ur-
basa-Andiara igo eta Bargagai-
nera (1.153 m) heltzeko. Urbanan

aurrera eginez, portutik Gainso-
lera helduko dira, eta handik
Ziordiraino jaitsiko dira. Hor
banatuko dira bi ibilbideak. Ibi-
laldi Laburra aukeratzetik dute
partzelarietatik barna, Cementos
fabrikako atzealdetik Altsasuko

frontoira helduko dira, helmu-
gara. Ibilbide Luzekoek, aldiz,
Kipular (1.059 m) igoko dute,
Orobeko antzinako harrobitik
jaitsi eta Sorozarretara heltzeko.
Hango hornidura gunean indarrak
berreskuratuta, Balankaleku (983
m) eta Intxusburu (946 m) igo eta
handik jaitsita, Sarabetik, San
Pedrotik eta Basoitxitik Altsasu-
ra helduko da. Badago ere tarte-
ko ibilbide ertain bat, Sorozarre-
tako hornidura gunetik Dorre-
txikitik bueltatzea eman eta
Altsasura iristen dena.

Mendian gozatzeko deia

Altsasuko Mendigoizaleak talde-
ko kideek eta boluntarioek guztia
prest dute Hiru Mendi Zerrak
mendi ibilaldia egun bikaina izan
dadin. "Ez dute euririk iragartzen
eta egun polita pasa dezatela opa
diegu mendizaleei. Hasiera batean
gure martxa apirilaren 2an egi-
tekoa zen, baina elurragatik atze-
ratu egin behar izan genuen.
Urtero moduan, ilusio handiz
prestatu dugu, eta pandemiagatik
azken bi urtetan antolatu ezin
izan dugunez, aurtengo edizio-
rako gogotsu gaude. Gurea ibil-
bidea ederra da, baina badu bere

gogortasuna ere, oso gorabehe-
ratsua baita. Paisaia zoragarria
da eta orain mendia ikusgarri
dago, berde-berdea. Gure paisaia
eta gure ibilbideak ezagutarazi
nahi dizkiegu Hiru Mendi Ze-
rrak-era hurbilduko diren guztiei.
Disfrutatu dezatela" opa du Al-
tsasuko Mendigoizaleak taldeko
Jesus Guineak.

Aurten, nobedade gisa, parte
hartuko duten mendizaleen artean
Bidelagun Elkarteko landetxeren
batean 80 euro gastatzeko txar-
tela zozketatuko da.

Irurtzungo jardunaldiak

Maiatzaren 15etik 22ra
Mendi Jarduerak antolatu
dituzte Iratxok eta Irurtzungo
Udalak. *Mendian hil hirian*
hil dokumentala, *Mendiak*
1976 filma, Joseba Arlegiren
Oman proiektzioa eta Eneko
Razkinek eskainitako
oruxmaps eta wikiloc
ikastaroak izanen dira.

ere animatu zen, eta azkenean
gurekin hasi zen baina bere kabuz
bukatu zuen Sakanako Ibilaldia.
Hasieran pena ere eman zidan,
ibilbide Motza egiten zuen lehen
urtea zelako eta nik elkarrekin
egiteko ilusioa nuelako, baina
lagunekin egitea oso polita iruditu
zitzaidan, datorren urtetarako
trebatuta daudelako eta beraiek
bakarrik ere parte hartzera
animatu ahal direlako.

Ibilbide Luzea eta Ibilbide Motza egin dituzu. Zeinekin geratzen zara?

Bakoitzak berea du. Luzea oso
oso berezia da, Sakana ia guztiari
ematen diozu paseoa eta esango
nuke giroa ere ezberdina dela.
Motzean adin ezberdinetako jende
gehiago dago: gazteagoak,
helduagoak... familiartekoagoa
bezala da, nahiz eta Ibilbide
Txikian hor bai haurrak eta
famiak egoten diren. Luzea alde
batetik serioagoa bezala izaten
da.

Beriain, Aralarko San Migel eta gero Trinitateak igotzeak pisu gehiago balu bezala?

Erronka handia da, jakina, batez
ere duen desnibelarengatik. Metro

asko igo behar dira. Eta Beriain
jaitsi ondoren segidan Aralar
igotzea... Berez jaitsierak gogorrak
dira, Beriaingo jaitsiera ere, eta
Aralar ongi igotzeko Beriain ez da
oso indartsu jaitsi behar, bestela
asko sufritzen da. Horregatik,
Aralarrera iristerakoan martxaren
pauso handi bat egina dagoenaren
sentsazioa izaten da.

Bukaeran zein giro zegoen Irurtzunen?

Eguna bikaina izaten da. Plazan
sagardo kupela jartzetik dute,
txistorra eta salda banatzen dira,
eta izugarriko giroa egon zen.
Jendea etxera joateko penaz
zegoen. Iritsi eta bezain pronto
antolatzaileei esan nien beste urte
batez guztia bikain atera zela. Izan
ere, izugarriko lana da Sakanako
Ibilaldia prestatzea. Denbora
askorekin hasten dira prestatzen,
baina gero jendea horren gustura
ikusten duzu... Uste dut Sakanako
Ibilaldia irurtzundar guztiendako
egun pozgarria dela eta egun
berezia bezala bizitzen dugula.
Beraz, atzera ere Iratxokoak eta
boluntarioak zoriondu eta eskertu
nahi ditut, izugarriko lana egin
eta gureta halako egun dotorea



UTZITAKOIA

"SAKANAKO IBILALDIA IRURTZUNDAR GUZTIENDAKO EGUN POZGARRIA DA, EGUN BEREZI GISA BIZITZEN DUGU"

prestatzeagatik. Eguraldiak ere
lagundu zuen, nahiz eta mendi
kaskoetan laino pixka bat egon,
baina tenperatura aldetik bikain
zegoen, ibiltzeko dotore.

Beste probatan aritzen al zara?

Lehen gehiago, korrika. Triku
Traila egin izan dut, Lakuntza-

Aralar mendi lasterketa,
Nafarroako beste lasterketa
batzuk... baina orain gutxiago.
Lasterketetan baino, neure
buruarekin lehiatzen dut. Askok
gustatzen zait mendian ibiltzea eta
aspalditik korrika pixka bat egiten
dut.

Hemendik aurrera, zein asmo dituzu?

Sakanako Ibilaldia bukatu
nuenean pentsatu nuen aurten
Triku Traila egiteko aukera
paregabea dudala, distantzia
horretarako erdi prestatuta

nagoela, eta uste dut izena
emango dudala. Beraz, hurrengo
erronka Triku Traila izango da.

Alabari mendian segitzeko harra piztu al zaio?

Nik uste dut baietz, jarraituko
duela. Hasieran zalantzekin
zegoen, baina plazara iritsi zen
eta esan zidan: zeinen gustura
ama, hurrengo urtean berriz, eta
saiatuko naiz lagun gehiago
animatzen. Askok poztu ninduen.

Datorren urteko Sakanako Ibilaldian Ibilbide Luzera itzuliko zara?

Hurrengo urtean berriz Ibilbide
Luzera itzuli nahiko nuke. Uste dut
denborarekin hartuta, gai izango
naizela prestatzeko, eta nire
herriko neska batzuk animatu nahi
ditut. Esan zuten, aurten neska
gutxi animatu ziren luzea egitera,
eta ea datorren urterako
animatzen garen.

Larunbatean Hiru Mendi Zerrak mendi martxaizanen da Altsasan.

Bai, Sakanako beste aldean,
Urbasa aldean izango da, eta
mendizaleak animatu nahiko
nizuke. Ziur nago polita izango
dela, disfrutatzeko eguna.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 6

ALTSASU Gazte agenda: Karta jokoak.
17:30ean, Intxostiapunta gazte gunean.

UHARTE ARAKIL *Tipularen sehaska kanta* Lander Garroren film dokumentalaren emanaldia.
19:00etan, udaletxeko ganbaran.

LAKUNTZA ArteDrama eta Huts Teatroyen *Atzerrian lurra garratz* antzezlanaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Sendaberri programa: *Aitzindariak* dantza ikuskizuna.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU *Herritarrek ez gutxietxi, eskubideak guztiontzat!* Elkarretaratzea.
19:00etan, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN Emakumea eta txirringularitza solasaldia. **Hizlariak:** Iosune Murillo, Erkuden Almagro, Héctor Roldán eta Maribel Aguirre. Moderatzailea: Ainhoa Lekunberri.
19:30ean, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Gazte Asanbladaren eta Gaztetxearen urteurrenak. **Berto afaye:** Eneko Lazkoz, Saioa Alkaiza eta Joanes Illarregi.
21:00etan, gaztetxean.

OLAZTI Zeker eta Wood String taldeen kontzertua.
22:30ean, *Clinker* tabernan.

LARUNBATA 7

ALTSASU Hiru Mendi Zerrak mendi martxa. Altsasuko Mendigoizaleak antolatuta.
07:00etatik, *Burunda* pilotalekutik.

IRURTZUN II. La Peluso

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Legaron de noche gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 6: 19:00
Igandea 8: 19:30

Un héroe gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 12: 19:00

zikloturista martxa. Irurtzun Taldea Kirol Elkarteak antolatuta. Bazkaldu ondoren, loteen zozketak eta omenaldia.
08:30ean, plazatik.

ARAKIL Apilaizko gaztaintoandoen berreskurapen proiektuaren ezagutze bisita. Arakilgo Udalak eta Sakanako Garapen Agentziak antolatuta.
09:00etan, herrietatik.

LAKUNTZA Ondatzeraz mendi irteera.
10:00etan, plazan.

ALTSASU Gazte agenda: **Gaztetxokoa plazara!**
18:00etan, Foru plazan.

IGANDEA 8

IRURTZUN I. La Peluso taldekako erlojupekoa. Irurtzun Taldea Kirol Elkarteak antolatuta.
10:00etan, plazatik.

OLAZTI Ainhoa Quintana, Marcos Marín eta Leyre Ayestaran musikarien gitarra eta akordeoi kontzertua.
18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU *Euskal preso eta iheslariak* etxera elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 9

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.
12:00etan, Udaletxearen aurrean.

OSTEGUNA 12

OLAZTI *Hauek bai benetako heroiak* Ameli eta Xirrikituaren jostunak ipuin kontalariak.
16:30ean, kultur etxean.



IRURTZUN Aitziber Irigoren *Nomadak* erakusketa. *Maiatzean zehar, Pikuxar* tabernan.

ZORION AGURRAK



Zorionak Belexe 23 urte gure belarriak euskaraz goxatzen. Zure entzule amorratuen partez, muxu bat!



Bazkide Zozketa

1. SARIA
LACTURALE: Esneki lotea
GAZTEZULO: 3 hilabetez doan
GUAIXE FUNDAZIOA: 25 urteen kit-a

2. eta 3. SARIAK
LACTURALE: Esneki lotea
GUAIXE FUNDAZIOA: 25 urteen kit-a

gaztezulo lacturale guaixe fundazioa

Zorion agurra
Maite dugunari

zorion@guaixe.eus

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Pisua bajearekin salgai: Etxarri Aranazko Santakitz kalean. Interesatuak deitu 669 156 117 tfnora.

LANA/NEGOZIOAK

ERRENTAN EMAN

Lizarragako Azi Iturri Txokoa 2022ko San Adrian festetan alokatu nahi da: Garagarrilaren (ekainaren) 17, 18, 19 eta 20an. Gubxienekoa 600 izanen da. Alokatu nahi duen donor maiatzaren 22an goizeko 12:00etan bertan ager dadila. Bat baino gehiago baldin badago enkantea egingen da. **Irurtzungo Udalak igerilekuko taberna alokatu nahi du udarako:** Baldintzak udaltxearen eska daitezke. Igerilekuko taberna eskuratu nahi duenak ekainaren 3rako aurkeztu beharko du eskaintza udaltxearen bertan.

Uharteko Arakilgo Udalarren igerilekuko taberna eta kirol instalazioaren kudeaketa emateko deialdia: kirol instalazioak garbitzeko eta mantentzeko zerbitzua, sarbideen eta informazio turistikoaren kontrola eta igerilekuko tabernaren ustiapena dira kontratu bidez eman nahi dituen lanak. Urte baterako (lau urtera luzatu daitekeena) kontratuta izango da, zeinagatik 15039,80 euro (Bez kanpo) eskaintzen ditu. Eskaintzak maiatzaren 20ko 12:00ak arte egin daitezke Udaltxearen bertan.

LAN ESKAINTZA

Irurtzungo PIKUXAR taberna sukaldari laguntzaile bila dabil: Esperientzia eta euskara baioratu dira. Interesa dutenek CVA pikutaberna@gmail.com helbide elektronikora bidali.

Irurtzungo Udalak igerilekuko zortzi langile kontratatu nahi ditu: Uda sasoirako lau sorosle behar ditu, izena ematea Udaltxearen egin behar da maiatzaren 18ko 14:00ak arte. Mantentze lanetarako beste lau pertsona kontratatu nahi ditu, lanpostu horretarako izen ematea maiatzaren 19ko 14:00etan amaizten da. Bi kasuetan Nafarroako enplegu zerbitzuan izena

emanda izatea ziurtatu behar da, NANA eta euskarazko B maila ziurtatzen duen agiria. Sorosleek, sorosle titulazioa eta desfibriladore ikastaro agiria ere aurkeztu beharko dituzte.

IKASTAROA

Emakume enplegu eskatzaileei zuzenduta Oinarritzko gaitasun digitalak doako ikastaroa Altsasun: maiatzaren 9tik 20ra, goizeko 9:15tik 13:15ra. Intxostiapunta gaztetokoa. Informazioa 948 012 012 tfnoan eta izen ematea 628 328 593 - miraola@altsasu.net.

Oinarritzko gaitasun digitalak doako ikastaroa Altsasun (lan egoera kontutan hartu gabe): Gaitasun digitalak prestatzeko aukerarik ez dutenen pertsonen zuzendua, maiatzaren 9tik 20ra, bi ordu egitan 15:00etatik 17:00etara edo 17:00etatik 19:00etara (plazak osatzen ez badira, ordu egiteak bakarra izango da) Intxostiapunta Gazte Txokoa. Informazioa eta izen emateak 628 328 593 tfnoan - miraola@altsasu.net emaillean.

Emakumeendako auto-defentsa ikastaroak: Zer dira eraso sexistak? Nola pairatzen ditugu? Nola identifikatu erasoak? Bi saio iznago dituzte, honako herrietan: Uharteko Arakilgo Udalarren maiatzaren 20ean 17:00etatik - 21:00etara eta 21ean, 10:00etatik - 14:00etara Udaltxearen ganbaran (izen ematea maiatzaren 17an amaizten da), Etxarri Aranatzeko maiatzaren 27an, 17:00etatik - 21:00etara, eta maiatzaren 28an, 10:00etatik - 14:00etara Kultur Etxean (izena emateko epea maiatzaren 24ean) eta Altsasun ekainaren 18an, 10:00etatik 18:00etara Gure etxea-ko eraikinean (izen ematea ekainaren 15ean amaizten da). Izena emateak berdintasuna@sakana-mank.eus edo berdintasuna@altsasu.net emailletara idatzi edo 660 384 328 / 628 328 593 tfnoetara deitu.

Oruxmaps eta wikiloc oinarritzko ikastaroa Irurtzunen: Mendian galdu gabe ibili nahi? Lelopen doako ikastaroa antolatu dute Irabio Elkarteak eta Irurtzungo Udalak. Bi saio izango ditu maiatzaren 13an, 18:00etatik - 20:30ra eta maiatzaren 14an, 9:30tik 13:30ra. Irabio Elkartearen

burutuko da. Izen ematea Irurtzungo Kultur Etxean edo 638 324 345 WhatsApp bidaldita.

OHARRAK

Gazteen Jaibuserako baimena: Jaibus zerbitzua gidabaimena dutenei zuzenduta dago, auto istripuak sahisteko. Lehen bidaiak maiatzaren 7an egingen ditu Iturmendin eta Altsasun festa baita. Jakinik, 16 eta 17 urteko gazteak herrietako festetara joaten direla, haiekin salbuespena egingen da eta Jaibusera irteerako aukera dute. Horretarako, familien baimena izan behar dute. Hori haien gurasoek edo legezko tutoreek egin beharko dute beraien eremuko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuan, adingabearen argazki bat eramanek eta inprimaki bat bete. Irurtzungo OGZ udaltxeko lehen solairuan dago, tfnoa 948 600 694, Etxarri Aranazko Kultur etxeko bigarren solairuan, tfnoa 948 460 752 eta Altsasuko Garbitoki egoitzako azken solairuan, tfnoa 948 467 662.

Etxarri Aranatzeko egur loteak eskatzeko epea zabalik: Onuradunak Etxarri Aranatzeko bi urtez erroldatuta daudenak, betebeharrak fiskalak egunean dituztenak, honaiz nagusi izan behar dute ere. Prezioa 44 euro izango da, epea kanpo egindako eskaerak 60 eruro ordainduko dituzte. Zozketaren eguna, ordua eta emailza bando bidez jakinaraziko da, edonola ere egurra saltzea beti ere debekatua dago. Baldintzak eta eskaera orria Udaltxearen edo www.etxarriaranatz.eus web orrian.

Tren publiko eta sozialaren aldeko ikerketa laguntzeko: Trenaren aldeko Alternatibak AHT bat egin beharrean gaur egun dauden azpiegiturak beregokitzea defendatzen du. Tren soziala alternatiba erreala bilakatzeko ikerketa serioa egin nahi dute. Horretarako, crowdfunding kanpaina martxan jarri dute. 12000 euro jaso nahi dituzte ekainaren 2rako. Ekarpenak egin nahi duenak <https://www.kukumiku.com/en/proyectos/trenaren-aldeko-alternatiba/> webgunera jo dezake, edozein kopuru ongi etorria izango da.

iragarki@guaixe.eus

ESKELA



Pablo Gonzalez Goikoetxea Maite Beperet Azpilicueta

Beti egongo zarete gurekin

Zuen kuadrilla
Altsasu

ESKELA



Maite Maitia

Enparantzako lagunak
Altsasun, 2022ko apirilaren 25ean

ESKELA



María Josefa Mazquiarian Aguirrebengoa

(Altsasun, 2022ko apirilaren 28an hil zen)

Bakean joan zara

Zure familia

JAIOTZAK

- **Mohassin Yasin Amri Tsouli**, apirilaren 26an Altsasun

HERIOTZAK

- **Martin Goikoetxea Berastegi**, apirilaren 28an Iturmendin
- **Maria Josefa Mazquiarian Aguirrebengoa**, apirilaren 28an Altsasun
- **Carmen Mazquiarian Celaya**, maiatzaren 1ean Altsasun
- **Bautista Urtasun Zubiria**, maiatzaren 3an Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜL, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Aixita bertso tronua txapeldunaren zain

II. Aixita Bertso Sariketa jokatu da maiatzaren 14an, larunbata, Irurtzango Pikuxar euskal txokoan. Sei bertsolarik parte hartuko dute. Sarrerak doan dira, eta ondoren egingen dute afarian parte hartzera gonbidapena luzatu du antolakuntzak.

Eneida Carreño Mundiñano eta Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Urtero antolatzeko bertso sari-keta gisa sortu zuten Aixita Bertso Sariketa duela pare bat urte. "Lehendabiziko gauza pentsatu genuena gelditzeko sari-keta bat izatea nahi genuela izan zen. Ez genuen urte bakar batean egingen den zerbait izatea". 2020an lehenengo edizioa egiteko dena prest zuten, baina pandemiagatik urte bat atzeratu behar izan zuten bertso sari-ketaren mustutzea. 2021ean egin zuten, beraz, I. Aixita Bertso Sariketa eta balorazio "oso-oso ona" egin zuten, Joana Ziganda Olano antolakuntzako taldeko kideak azaldu duenez. "Aurreko urtekoa emozio eta ilusio handiz prestatu genuen, baita beldur puntu batekin ere berria zelako". Oso kalitate oneko saioa izan zela esan zuten ikusleek eta bertsolariek. "Saio borobila izan zen". Datozen edizioetarako hobekuntza proposamenengatik galdetu zuten, eta aurtengo saioa prestatzeko horiek kontuan hartu dituzte.

Aixitako txapeldunak

I. Aixita Bertso Sariketako txapelduna Eli Pagola izan zen. Saioa Alkaizak, egun Nafarroako Bertsolari Nagusiko Txapelduna, Iker Gorosterrazuk, Xabi Igoak, Maddi Ane Txoperenak, Imanol Uriak eta Pagolak parte hartu zuten. Irurtzango kultur etxean egin zuten saioa, eta Imanol Uriak eta Eli Pagola iritsi ziren buruz burukora. Kultur etxea bete zen eta giro goxoa eta berezia sortu zela esan zuten antolatzaileek.

II. Aixita Bertso Sariketa maiatzaren 14an, larunbata, izanen da, 18:30etik aurrera, Pikuxar euskal txokoan. Antolatzaileen hasierako nahia Pikuxar euskal txokoan egitea izan zen, "baina ez zen garaiz bukatu, oso berria dugu Pikuxar, eta horregatik kultur etxean egin genuen". Are-



Eli Pagolak irabazi zuen lehenengo Aixita bertso sari-keta. ARTXIBOA

JATORRI ETA GENERO IKUSPEGITIK OREKATUA IZATEA DIRA AIXITAKO IRIZPIDETAKO BI

toa oso polita dela esan du Zigandak, eta, beraz, bertso saioari aukera polita eskaini zion. Bigarren edizioan tokia berrikuntza izango da, hasierako ideia horretara eutsi ahal izan diotelako: Pikuxar euskal txokoko ganbaran izango da, goiko solairuan. "Oso leku aproposa da gauza politik egiteko". Aixita Bertso Saiorako sarrera doakoa da, ez da aurretik izena eman behar, "etortzearekin nahikoa da"; baina behin saioa amaituta antolatzaileek, bertsolariek eta "nahi duen edozeinek" afaria egingo dute, eta antokuntzatik parte hartzeko deia luzatu du. Afaltzera joan nahi duenak aixitabertsosariketa@gmail.com epostara mezu bat bidali behar du. Afaria 15 eurotan da.

Zergatik deitzen da Irurtzunen antolatzen duten bertso sari-keta Aixita? Irurtzun eta

Arakil aldean ezaguna den izena da Aixita. "Bertso sari-ketarako izena bilatu behar genuenean zerbait berezia eta inguruarentzako erreferentziala izango zena izatea nahi genuen. Aixita gazteluaz hitz egin genuen orduan". Aixita bi aizpetan kokatuta dagoen gaztelu bat da, Nafarroako Erreinuko defentsa gaztelu bat izan zen, eta azken urteetan hura berreskuratzen lan handia egin dutela azaldu du Zigandak. "Momentu honetan ibilbide polita dago bertara iristeko eta bertara iritsita gazteluaren hondarrak ikus daitezke". Bertso sari-ketaren izenak, beraz, bi helburu ditu: Aixita ezagutzera ematea eta erreferentziala izatea.

Kartel orekatua

Bertso sari-ketan parte hartzeko bertsolariek lotzeko hasieratik irizpide nahiko argiak utzi zituzten: alde batetik, herrialdeka oreka bilatzen zuten, hau da, Euskal Herriko herrialdeak ordezkatzuta egotea nahi zuten. Bestetik, 30 urte inguru bertsolariek izatea nahi zuten, "gazte-gazteentzako sari-keta asko

II. Aixitako bertsolariak



AISSA INTXAUSTI ABURRUZA
1996; LEKEITIO



MAIALEN AKIZU BIDEGAIN
1996; URRETUXU



ANE LABAKA MAYOZ
1992; LASARTE-ORIA



IKER ALTUNA ALBISU
1994; HENDAIA



AITOR IRASTORZA ARRIZURIETA
1991; LARRAUN



SAATS KARASATORRE MARTINEZ
1992; ETXARRI ARANATZ

daudelako, baina iristen da momentu bat, urteak pasa ahal, plazak gutxitzen direla". Genero ikuspegitik ere oreka bilatzen dute.

Sei bertsolarik parte hartuko dute, beraz, II. Aixita Bertso Sariketan; bi gipuzkoar, bi nafar, bizkaitar bat eta lapurdinar bat. "Arabako Bertsolari Txapelketa garai honetan denez, oso zaila izan genuen inor konprometitzea, eta horregatik bi gipuzkoar egongo dira", azaldu du Zigandak. Aissa Intxausti bizkaitarra, Maialen Akizu eta Ane Labaka gipuzkoarrak, Saats Karasatorre etxarriarra eta Aitor Irastorza nafarra eta jaiotzez gipuzkoarra den baina Lapurdin bizi den Iker Altuna.

Sariketa 18:30ean hasiko da eta lehendabizi kanporaketa saioa egingo dute. Bertsolariek zortziko handian, ofiziokoa, zortziko txikia, Iparagirre eta kartzelako lanean puntu erantzuna eta gai bati bi bertso ariketak egin beharko dituzte. Kanporaketa honetan puntu gehien lortzen dituzte bi bertsolariak buruz burukora pasako dira, atsedendalditxoaren ondoren egingo dutena. Finalistek hamarrek txikiak, puntuka hiru bertso osatu, seiko motza eta gai bati hiru bertso ariketak egin beharko dituzte. "Nahiko exigentea da. Lan handia egin beharko dute". Gai jartzailea Zigor Gartzia Zian izango da, "esperientzia handia du gaiak jartzen".



Eztanda Txaranga kideak Iturmendin egindako kalejiran. UTZITAKOA

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Txaranga bat herrietako festetan aritzen diren musika talde bezala deskribatu daiteke. Giroa sortzeko eta jendea entretenitzeko musika banda txikia. Zortzi musikarietatik hogeit hamar pertsonetara osatu dezakete txaranga. Irailean hamar bat gazte entseatzera elkartu ziren, eta txaranga bat sortu zuten: Eztanda. Dagoeneko haien lehenengo emanaldiak eman dituzte, eta bihar, maiatzak 7, larunbata, Lagun Onak elkartearen urteurren ospakizunetan eta Alde Zaharreko Festetan jotzen dute.

Alain Razkinek tuba jotzen du, Asier Valdiviesok bonbardinoa, Aimar Apaolazak tronpeta, Unai Manerok tronboia, Alain Jakak tronpeta, Fermin Azkargortak saxofoia, Adrian Trevejok bonbo txapak, Ander Marinek saxofoia eta Adur Kanpok kaja jotzen du. Lakuntzakoak, Altsasukoak eta Olaztikoak dira, oso gazteak, eta musikak elkar-tu ditu. Gehienek Haize Berriak bandan jotzen dute. "Kontua aspalditik dator. Aspaldi, duela lau urte inguru, Sakaranga txaranga utzi zuen eta ni izan nintzen Sakaranga azkeneko kaja edo perkusionista sartu zena izan nintzen. Batzuk utzi zuten eta beste batzuk jarraitu genuen, eta proiektu berri bat egiten saiatu ginen", azaldu du Adurrek. Unai eta Alai sartu ziren momentu horretan. "Proiek-

Festetako eztanda

Txaranga berria sortu dute Sakanako zenbait musikari gaztek; Eztanda txaranga. Dagoeneko Iturmendiko inauterietan eta 4x4 txapelketan jo dute, eta asteburuan Altsasuko Alde Zaharreko festetan ariko dira ere.

tu hura ez zen atera". 2021ean utzi zuten jotzez, eta irailean Unaik berriz aktibatzeke proposatu zuen. Jendea batzen hasi ziren. "

Nortzuk zeuden prest ikusita, bakoitzak zer jotzen zuen begiratu zuten. Adurrek kaja jotzen zuen, Adrianek bonbo txapak eta perkusio aldetik ongi beteta gelditzen zen. Tronpetista bat behar zuten eta Unaik Asier Haize Bandatik ezagutzen zuen, bi saxofonista behar zituztenez bandako Haran eta Fermin gonbidatu zituzten ere. Beranduago Aimar eta Alain sartu ziren.

MODAN DAUDEN ABESTIAK JOTZEN DITUZTE; REGGATOIETIK ZOPILOTES-ERA

Hasieran zazpi joaten ziren entseatzera, eta orain "postu guztiak" beteta gelditu dira.

Gazteak

Txaranga gaztea denez "badakigu gazte gehienei" zer gustatzen zaien. Aurrekoan Sakanako herrien arteko 4x4 futbol txapelketan jo zuten, Iturmendin, eta oso goiz hasi ziren. Baina bazekiten momentu bakoitzean, gutxi gora behera, zer kanta jo. "Badakigu zer kanta prestatu gazteei bideratuta. Bai gazteen-tzat bai helduentzat".

Zer da gazteei gustatzen zaiena? "Baditugu kanta batzuk orain modan dagoen reggatoietik mol-datutako kantak, Zopilotes jotzea jendearen gustukoa da, La Raiz... Azken aldian nahiko famatua egin den Bakalau Salau ateratzen saiatzen ari gara". Abestien txaranga bertsioak jotzen di-

tuzte, eta abestiak ikasteko partiturak erabiltzen dituztela esan du Unaik.

Lehenengo emanaldian "gogotsu eta urduri" atera zela esan du Asierrek. "Lehenengo aldia txarangarekin ateratzea eta ez zaituztenez ezagutzen urduri nengoen. Ez dakizu nola erre-akzionatuko duen jendeak zuzutean". Iturmendiko inauteriak izan ziren haien lehenengo irteera, otsailaren amaieran, eta ondoren Sakanako herrien arteko 4x4 txapelketara itzuli ziren Iturmendira, aurreko asteburuan. Lekunberrin egon ziren ere.

IRAILEAN SORTU ZUTEN TXARANGA, ETA DAGOENEGO HIRU EMANALDI EMAN DITUZTE

"Lekunberriko jendea nahiko kontetu gelditu zen gurekin". Hiru emanaldi egin dituzte, irailean hasi ziren entseatzera, eta oraindik esperientzia falta nabaritzen zaiela aitortu du Adurrek. "Baina jendeak esan zigun gustura egon zela, eta gazteak izatean txarangari mesede egiten dio". Esperientzia faltagatik akatsak egiten dituzten arren, entseuetan zuzentzen saiatzen dira.

Gogoa eta festak

Txaranga batean jotzeko garrantzitsua "gogoa" izatea dela esan dute musikariek, "eta ongi jotzen saiatu". Ez da lan erraza, izan ere zutik eta ibiltzen jo behar dute, ohituta ez dauden modu batera. "Baina hori ere esperientzia kontua da". Festetan txaranga jotzea "festaren parte" ikusten dute. "Jotzen ari zarenean alkohola edaten duzu, baina neurtzen saiatzen zara. Behin jotzez amaitzen duzula gora-gora zaude, eta festarekin jarrai dezakezu". Neurtzen eta zentzudunak izaten saiatu behar dute, baina hala ere, festa bizitzeko beste modu bat bezala ikusten dute txaranga. Taldean musikari oso gazteak daude, eta gurasoen oharrarekin joaten dira emanaldietara. Asier: "Txarangarekin jotzera joaten naitzen esaten didate arduratsu izateko eta alkohol asko ez edateko".

Momentuz, Eztanda txaranga ez ditu espektatiba handirik. "Momentuaz disfrutatzen" ari dira. "Gero ikusiko dugu hemendik sei hilabetera edo urte batera jarraitzen dugun". Asmoa ongi pasatzea da, bai emanaldietan bai entseuetan. Ostiral gauetan elkaroten dira entseatzeko, eta "etekina" ateratzen diotenean merezi duela esan dute. "Bestela esfortzua egiten dugu eta etxera leher eginda joaten zara". Entseuetarako eta bidaietarako diru pixka bat ateratzea nahi badute ere, helburua ez da txaranga bizitzea.

Sanferminak "Championsean" jotzea bezala izanzen zela esan dute Eztanda taldeko kideek. Non jotzea gustatuko litzaiokeen galdetuta, denek Munduko festa ezagunenetan aritzea nahiko luketela esan dute. Sanferminetara joaten direnean, txarangarekin joaten dira. Herriko festetan jo nahi duena ere badago.

Stupenda Jones taldearen kontzertu bakarria

Olazti eta Altsasuko musikariak biltzen zituen taldeak Maisuenea Gaztetxearen 27. urteurrenean joko du, Stepi Sektah, Streetwise eta Ahuntzak taldeekin batera. Egun osoko egitaraua prestatu du Olaztiko Gazte Asanbladak.

OLATZAGUTIA

Sakanako musika talde mitiko bat da: Stupenda Jones. 2013an igo zen azkeneko aldiz Olaztiko eta Altsasuko hirukotea osatzen zuen taldea eszenatoki batera, kontzertu bat eskaintzera. Orain, ia hamar urte ondoren, aukera bakarria izanen da Stupenda Jones taldea ikusteko. Maisuenea Gaztetxearen 27. urteurren ospakizunetan izanen da, maiatzaren 14an, larunbata, 22:30etik aurrera. Sarrerak Etxarri Aranzako Xapateron, Altsasuko Idergin, Olaztiko Clikerren eta Aguraingo Herriko eros daitezke 5 eurotan. Haiekin batera Stepi Selektah reggae, Streetwi-



Stupenda Jones taldea. UTZITAKOIA

se taldea eta Ahuntza taldea ariko dira. Egunean zehar Triki poteoa, mozkor olinpiadak, Elektropikala eta elektrotzaranga izanen dira Olaztiin, gaztetxearen urtemuga ospatzeko.

Stupenda Jones 2003. urtean sortu zuen Altsasuko eta Olaztiko laukote batek. Lehenengo abestiak Brigada Criminal taldearekin batera kaleratu zituzten eta 2006an publikatu zuten haien lehenengo diska: Etorkizuna lehertu. 2008an Xabi baxujoleak utzi zuen, eta hirukote bezala jarraitu zuten. 2010ean Hiru diskoa kaleratu zuten. Zenbait urtez aritu ziren kontzertuak ematen, eta 2014an taldea desegin zen.

Eneida Carreño Mundiñano eta Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Pandemiagatik bi urtez ospatu gabe egon ondoren, maiatzaren 8an, igandean, Altsasuko Dantzari Txiki Eguna egingen dute Alde Zaharreko Festen egitarauen barruan. Etorkizuna Dantza Taldea anfitrioiak izanen da, eta Urretxuko Lurra Dantza Taldea eta Irurtzango Orritz Dantza Taldea izanen dira gonbidatuak. Egoerak bultzatuta, goizeko egitaraua prestatu dute, ohikoa izaten zen dantzarien bazkaria eta arratsaldeko emanaldia bertan behera utziz; izan ere, COVID-19 birusak sortutako pandemiaren egoerak hobera egin duen arren, arriskuak gutxitu nahi izan dituzte antolatzaileek.

Datozen urtetan egun osoko egitaraua berreskuratzen saiatuko direla esan du Iñaki Agirre Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako euskal dantza eta Etorkizuna Dantza Taldeko iraskaleak.

Altsasuko Dantzari Txiki Eguna duela 27 urte inguru ospatzen dela esan du Agirrek eta etenaldi bakarria pandemiaren bi urteak izan dira. Igandean "gogotsu" itzuliko dira dantzari txikiak kalera, eta 11:30ean Altsasuko Musika eta Dantza Eskolatik aterako dira eta herritik kalejira egingen dute, hiru puntu desberdinetan gelditu, eta bertan emanaldia egingen dute. Iortia zabalgunean bukatuko dute.

Dantza Taldeak

Etorkizuna Dantza Taldea 1990ko hamarkadan sortu zuten. Agirre "pixka bat beranduago" hasi zen irakasle. Dantza eskolaren hastapenetan Jesus Mari Garate edo Anabel Beramendi irakasleak egon ziren. Duela 25 bat urte irakaslearen ardura hartu zuen, eta gaur egun dantza irakasle jarraitzen du. Beste garai batean "agian" dantzari ere izateko tentazioa izaten zuela aitortu du, "orain urteak pasa ahal oso argi daukat nire garaia pasa zela". Gaur egun, dantza eskolan 90 dantzari inguru daude, adin guztikoak. Normalean bost urterekin hasten direla azaldu du Agirrek, "eta beraiek iraun nahi duten bitartean" egoten dira taldean.

Irurtzango Dantza Taldeak 33 urte beteko ditu aurten. Irati Ollakarizketa Iriarte taldeko irakaslea eta dantzaria da. "Helduen eta haurren taldea dugu eta helduen taldean dantzari aritzen naiz. Beste alde batetik,

txikien irakaslea naiz". Helduen taldean hogeit bat dantzari daude, eta txikiak 40 inguru dira. Gehienbat dantza taldean Irurtzun eta Arakil inguruko jendea dago, baina Izako jendea dagoela eta Uharte Arakilgo eta Lekunberriko jendea izan dela esan du Ollakarizketa. Taldea osasuntsu dago: "Uste genuen pandemiak kalte gehiago egingo zuela, baina indartsu itzuli gara". Bi urte dantza egin gabe egon ondoren jendeari "sekulako mina" egingo ziola uste zuten, baina "hutsetik hasteko" aukera bat bezala ikusi zuten. "Azkenean, guk ere dantzak erdi ahaztuta genituen, orduan deialdia ireki genuen jende berria sartzeko, eta jendea sartzera lortu dugu".

Urretxuko Lurra Dantza Taldea ezaguna da Altsasuko Dantzari Txiki egunean, urte askotan izan delako. Taldeak 58 urte egingen ditu, eta Juan Luis Elgarresta Murillo irakaslea hasieratik egon ez bada ere, "gutxiagatik" da; 44 urte daramatza taldean. Irakaslea ez ezik, taldean bi alaba ditu. Momentu honetan haurren eta helduen taldeak kontuan hartuta 90 pertsona osatzen dute taldea. Gehienak Urretxukoak dira, baina herriak Zumarragarekin duen gertutasunagatik bertako jendea ere dagoela esan du, baita Legazpiko eta Ezkioko jendea dago ere. Pandemiak "izorrratu" diela aitortu du: "Kopuru jaitsiera dezente izan dugu". Lana egiten jarraituko dutela esan du Elgarrestak, "eta espero dugu datorren ikasturtean gutxieneko kopurua berreskuratzen joatea". Taldea "indartsu" dagoela esan du.

Dantzari txikiak

Ekimenaren izenburuak dioen bezala, Dantzari Txiki Eguna, dantzari txikien ospakizuna izanen da igandekoa eta, beraz, dantza taldeetako haurrak izanen dira. Guztira, 110 haur inguruk parte hartuko dute. "Malgua eta egoeraren araberakoa da. Garai batean Dantzari Txiki Egunean 16 urte bitartekoak parte hartzen zuten. Gaur egun, dantzari txikiagoentzat bihurtu da", azaldu du Agirrek. Muga non jarri ez dakitela esan du irakasleak. "Nerabeak batzuetan adin batetik aurrera ez dute parte hartu nahi, orduan guk taldearen beharren arabera erabakitzen dugu". Taldekideei parte hartu nahi duten edo ez galdetzen diete. "Ez ditugu



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

Hemen da azoka!!!

Ez gehiago itxaron, lagunok. Bi urteren ondoren azkenean iritsi da unea. Aste bukaera honetan, maiatzaren 6tik 8ra, Bartzelonako komikien azoka bueltan da! Haizean nabaritzen da, nolabaiteko berotasuna. Ez da udaberriaren beroa, azokaren bueltaren zirrara baizik!

Komikien jarraitzaileondako Bartzelonako azoka urteko jardunaldi garrantzitsuen da. Estatu mailan Bartzelonako azokak ez du parekorik, guztietatik potentea baita. Aurten 40. edizioa izango da.

Azoka hau ez bakarrik zaleondako, profesionaleri eta industriara zabaldua baitago baita ere. Komiki argitaletxe nazionalak

asteburu hau aprobeztatzen dute haien nobedadeak argitaratzeko. Argitaletxeek postuak eraikitzen dituzte han komikiak saltzeko. Postu horietan eta ordutegi baten barruan autoreak eta artistak daude haien komikiak sinatzen. Une magikoa da komikigile batek komikiak sinatzen dituenean. Aurten 50 autore baino gehiago egongo dira azokan sinatzen. Horretaz gain, beste hainbat profesionalak hitzaldiak ematen dituzte. Hala ere, autore amateurrek badute beraien txokoa azokan.

Mundu guztiak du toki bat azokaren barruan.

Gainera, komikiaren azokan ez dira bakarrik komiki berriak aurkitzen, bitxikeriak ere aurkitu daitezke.

Bildumazaleendako data hau berezia da baita. Komiki azokak ez dio inbidiarik haren lehengusuari: Manga azokari. Gaur egun Manga azoka ez da behin izan zena. Merchandising salketan eta asiar kulturaren inguruko jardunaldietan bilakatu da. Komiki azokak baditu merchandising postuak, baina funtsean, orain dela 40 urte bezain bizia jarraitzen du izaten.

Ni, lagunok, asteburu honek zer eskainiko didan ikusteko irrikaz nago. Komikiren baten bila joango naiz, argazki pila aterako ditut eta libretatxo bat eramango dut soinean, elkar ikusten dugun hurrengoan nik bizitakoa zuei kontatzeko. Hurrengora arte!



Dantzaren Nazioarteko Egunean Etorkezuna Dantza Taldeak emanaldia egin zuen.

Dantzariak plazara

Altsasuko Dantzari Txiki Eguna ospatuko dute maiatzaren 8an, igandean, 110 bat dantzari. Urretxuko Lurra Dantza Taldeak, Irurtzungo Orritz Dantza Taldeak eta Etorkezuna Dantza Taldeak parte hartuko dute. Bi urteren ondoren "gogotsu" daude.

ikasleak behartu nahi horrelako gauzataraz". Aurtengo edizioan Altsasuko dantza eskolako 5 eta 13 urte bitartekoek parte hartuko dute, 40 dantzari inguru.

"Altsasuko gonbidapena oso pozik hartu dugu. Beti ilusioa egiten digu horrelako ekitaldietara gonbidatzen gaituztenean. Bi urte geldirik egon ondoren, haurrei ere ilusio egin die, eta gogotsu daude". Ollakarizketak azaldu duenez, Irurtzungo ere 40 bat haur eta gazte joanen dira Altsasura. "Eskainiko ditugun dantzak beti eskaintzen ditugunak dira: esku dantza, jauziak... Baina batez ere haurren esfortzu guztia, gogoak eta ilusioa erakutsiko ditugu".

Altsasuko Dantzari Txiki Egunera etortzeko lehenengo kontaktuak urtarrilean izan zituztela esan du Elgarrestak. "Gauzak hobetzen ari dira, eta ideia bat

argi geneukan: egin behar zen bai ala bai". Hala ere, guraso eta irakasle bezala zenbait arrisku ikusten zituzten, gehien bat bazkariaren gaiarekin. "Egitekotan goizez bakarrik egitea pentsatu genuen, eta gero bakoitza bere etxera bazkaltzera". Betiko formatuan ez bada ere, behintzat haurrei aukera hori ematea garrantzitsua zen. "Kalean zehar ibiltzen bagara ez dago hainbeste arazorik. Hamaiketako kalean ematea ere, ongi. Baina barrualdean bazkaria egitea eta abar... Errespetu pixka batekin ikusten zen". Kontaktuan jarri zirenetik

"BI URTE GELDIRIK EGON ONDOREN HAURREI ILUSIOA EGIN DIE; GOGOTSU GAUDE" IRATI OLLAKARIZKETA

gaur egun arte, "gauzak asko aldatu dira", eta, besteak beste, dagoeneko haurrek ez dituzten ikastetxetan musikorik eraman behar, "baina garrantzitsuena zen aukera ematea". Lurra Dantza Taldeko 35 haur izanen dira Altsasun. "Azkenengo bi urtetan gure lehenengo irteera da". Kulturarekin pandemian zehar administrazioak izan duen jarrera kritikatu du urretxuarrak: "Futbola ikusteko ez zegoen arazorik. Kulturaren ere profesionalak aritu dira, baina guk ezin genuen".

Hitzarmenak

"Bi gauza desberdin behar ditugu. Alde batetik dago dantza eskola eta, beste alde batetik, Etorkezuna Dantza Taldea. Altsasuko Musika eta Dantza Eskolan dantza irakaskuntzaz arduratzen gara, gehienbat. Gero Etorkezuna Dantza Taldea emanaldietan par-

te hartzeko mantendu da", azaldu du Agirrek. Altsasuko Musika eta Dantza Eskola udalarena da, eta Etorkezuna Dantza Taldea bertako dantzariekin sortutako talde bat da, eta Dantzari Txiki Egunaren antolatzailea da. "Batzuetan udalarekin hitzarmenak izaten dira". Etorkezuna akademia zenean, azaldu duenez, udalarekin "lokalak erabiltzeko eta hainbat ekintzaren bitartez dirulaguntzak jasotzeko" hitzarmena zuen. Gaur egun, taldearekin ez duena.

Orritz Dantza Taldeak Atakondoa ikastetxeko gimnasioan entseatzen du. "Irurtzungo Udalarekin hitzarmena dugu. Entseatzeko lokala uzten digu, baina arropak eta materiala gordetzeko toki bat ere". Ondorioz, urtean zehar zenbait emanaldi hitzartuta dituztela azaldu du Ollakarizketak.

Urretxuko Udalarekin ere hitzarmena dutela azaldu du Elgarrestak. Lizeon entseatzen dute, eta normalean entseguak banatzen dituzte, "bestela, nahiz eta lokala handia izan, denok batera ez gara satzen". Ostiral arratsaldean elkartzen dira, haurren eskolaz kanpokoan ordutegiak eta abar kontuan izaten dituztelako. "Helduekin beste ordutegi batzuk izaten ditugu, baina haurrekin 20:00ak arte egoten gara".

Tendentziak

Etorkezuna Dantza Taldean Euskal Herriko herrialde guztitako dantzak lantzen dituzte. "Urte hasieran aukeratzen ditut mailaren arabera zer dantza egingo dituzten", azaldu du Agirrek. Horietatik Dantzari Txiki Egunerako batzuk aukeratzen ditu, "ez ditugu guztiak eramaten". Txistulariekin ere dantzak adosten dituzte.

Tradizionalki Euskal Herriko herrietan dantzatu izan diren euskal dantzak egiten dituzte Orritz Dantza Taldean. "Horietan sartzen dira bai jotak bai paleoteadoak makilekin dantzatzen direnak eta abar. Dantza pila bat daude". Ollakarizketak esan duenez, ez dira tendentzia berrietan "asko sartzekoak".

AURTENGO EDIZIORAKO GOIZEKO EGITARUA ANTOLATU DUTE, ARRISKUAK EKIDITEKO

Elgarrestak euskal dantzan sortzen ari den tendentzia berrien "kontran" dago. "44 urte euskal dantzan daramatzat. Aurten Nafarroako Erriberrian Ribafordako dantzak ikasten egon naiz. Dantza berri bat. Seguruenik Gipuzkoako bakarrak izango gara". Gogoekin eginez gero gauza asko lor daitezkeela uste du Urretxuko dantza irakasleak. "Ikusten dugu Nafarroa aldean dantza zaharrak berreskuratzen ari direla. Horretarako gaude gu". Jaialdietan parte hartzen dutenean "ez ditugu beti dantza berdinak egingo". Programa oso zabala dutela azaldu du. "Jantzi aldetik ere badaukagu jantziteri ikaragarri polita eta aberatsa". Oinarrizko "kutsu hori" galtzen ari dela dio, "esentzia galtzen ari da. Euskal dantzak aukera guztia ematen dizu. Dantzari izatea zer den ikusten duzu". Gorputz mota guztiekin dantza egin daiteke. "Edozein herritan herriko jendeak dantza egiten zuen eta hori ematen dugu". "Ezagutzen dut jendea nahasketarekin koreografia bat egin dutenak. Guk ere egiten dugu koreografiaren bat. Baina emanaldi baterako da, ez jaialdi baterako".

Egoera berria

Altsasuko Dantzari Txiki Egunean parte hartuko duten hiru dantza taldeak gogotsu itzuliko dira plazara. Udaberrian eta udan hainbat emanaldi aurreikusitakoak dira, nahiz eta Agirrek aitortu duen, uda "konplikatu" izaten den, gehien bat oporraldien garaia delako. "Oraindik zehaztu behar dugu zenbat talde, zenbat dantzari eta abar dauden data horietan". Momentuz bi edo hiru emanaldi aurreikusita dituzte.

Orritz dantza taldea uztailari begira dago, Irurtzungo festetara. "Ikuskizun handia izan ohi da, guretzako aktuzio garrantzitsua eta berezia da". Festetako lehenengo egunean helduek dantzatzen dute eta azken egunean haurrek. "Gure herrian da eta ikasturte osoan zehar landu ditugun dantzak erakusteko momentua da". Plazara betetzen da, eta "herrian dantza-tzeak eta horrelako giroa sortzeak" ilusioa egiten duela esan du Ollakarizketak. Betelun eta Irañetan aritzeko deitu diete ere.

"Eskerrak gauzak mugitzen hasi diren. Beste urte bat geldirik eta seguruenik hurrengo urterako atea itxiko genuke", esan du Urretxuko dantza taldeko irakasleak.

"Partidak zeresana sortu du; umorez hartzen dugu"

Igandean 17:00etan Altsasun antolatutako Oinatz Bengoetxearen agurreko pilota partidan aurkariak izango dira Iker Alustiza Alba eta Mikel Senar Bergera pilotari afizionatu ohiak. Alustizak Bengoetxea izango du bikote eta Senarrek Mikel Goñi

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

1 Nork proposatu zizuen Oinatz despididako partida bitxian parte hartzea?

M.: Astean behin Burunda pilotalekura joaten gara pilotan jokatzerara eta entrenatzera, eta behin Miguel Angel Urrestarazu etorri zitzaigun esanez Oinatz agurra egin nahi ziotela, eta ea prest geundeeen beraiekin partida bat jokatzeke. Aztertu ondoren, baiezkoa eman genuen. Koxka tabernako Josuk, Pilota-jaukukoek eta bestek lotu dute jaialdia.

I.: Partida bitxia da, bai, baita marroi pixka bat guretako (kar, kar...).

2 Oinatz Bengoetxea erretiratu berri da eta sasoi betean dago.

I.: Bai, eta horregatik ni Mikel baino lasaiago nago. Mikelek lan gehiago izango du aurrean Oinatz eusten.

M.: Ni pilotalekua garbitzen egongo naiz Oinatzekin, alde batetik bestera (kar, kar).

3 Mikel Goñi jokatzen ari da, baina ez dakigu zein maila duen.

I.: Barrutik sasoiaren zegoela atera zen, baina ez dakigu nola egongo den. Lagun batzuk Hernanin partida batean ikusi zuten eta nahiko ongi aritu zela aipatu zuten. Orain atzean jokatzen du; errazago izaten da. Berak nik baino askoz ere gehiago jokatuko duela uste dut. Beraz, eutsi beharko diot.

4 Jaialdiak sekulako ikusmina piztu du.

M.: Guk lagunarteko partida bat izango zela uste genuen hasieran, 50 pertsona edo bilduko zirela, eta Ikerri esan nion, behintzat argazki polita aterako genuela, baina gure argazkitxo hara zertan bilakatu den.



Iker Alustiza Alba eta Mikel Senar Bergera, Burunda frontoi sarreran.

I.: Joan zen egunean esan ziguten 650 sarrera baino gehiago saldu ta daudela dagoeneko. Horrenbeste jende joateak guri nolabait teko ardura sortu digu.

5 Urduri al zaudete?

I.: Oraintxe bertan, elkarrizketagatik urduriago partidagatik baino (kar, kar...).

M.: Hasieran betiko urduritasun hori izango dugu, baina jokatzen hasita, listo. Izan ere, pilotalekua bete dagoela jokatzerara ohituta gaude (kar, kar...).

6 Pilotajaukun trebatu zineten, eta afizionatu mailan ere lehiatu zineten.

M.: Pilotajauku klubarekin 27 edo 28 urtera arte jokatu genuen. Beti izan dugu pilota bihotzean eta buruan, horregatik beti taldetxo bat elkartzen gara esku pilotan gure kabuz aritzeko. Al-

tsasu bezalako herri batean, tristea bada ere, gaur egun ez dugu afizionatu mailako pilotaririk. Eta hain zuzen ere, horregatik etorri zaigu guri pilota partida honen proposamena, errebotez. Nahiago izango genuke Oinatz omenaldia herriko beste bi gaztetxorekin antolatu izan balitz, baina...

I.: Urte askoko arazoa izan da. 22 urte nituenean dagoeneko afizionatueta jende falta baze goen gure klubean.

7 Jaialdia zabaltzen duen partidari Pilotajaukuko kadeteak lehiatuko dira, Carabias-Vicente Mitxelena-Gordoren kontra.

M.: Ea kadete horiek aurrera jarraitzen duten, etorkizunean Altsasun afizionatuak egoteko. Gu entrenamenduetan lagundu eta dakiguna erakusteko prest geundeko.

8 Zer nolako partida espero duzue?

I.: Nahi izan ditugun pilotak jarri ditugu eta alde horretatik lasai gaude. Ez gaude pilota gogorrekin jokatzeke, eta mistoak erabiliko genituela esan genien hasieratik, pilota berriak, botea izateko. Uste dut partida polita izango dela.

M.: Igandeko jaialdia agur bat da, Oinatzendako omenaldi bat, eta helburua jendea eta pilotariok gustura egotea da. Horretarako, laurek zerbait egiteko moduko materiala jarri behar da. Partida berezia da, izenetatik hasita, eta materialak ere horretara egokitutakoa izan beharko du. Baina argi geratu dadila pilotak ez direla trapu zahar batzuk.

9 Partidaren harira txantxa asko entzuten ari zarete?

I.: Bai. Harakina naiz, eta dendara sartzen diren hirutatik bik zerbait aipatzen dute. Anaia ni baino kontentuago dago.

M.: Zeresana dago eta umorez hartzen dugu. Partida saltsero bat izango denez, guk ere jarre-

ra saltsero hori hartu behar dugu: jendearekin egon, barre egin... jakinda bizia ez dugula hortan. Jada aste pare bat edo hiru daramazkigu kontu honekin eta ondoren ere ziur ere entzungo ditugula, baina beti modu onez.

10 Azken urtetan Altsasuko Pilota Goxua Txapelketa jokatzen zen data hauetan.

I.: Bai, bertan parte hartzen genuen eta partidetera ere jende asko joaten zen.

M.: Pandemia ondoren ez da berreskuratu. Hain justu finalak orain izaten ziren. Oso txapelketa polita zen, parte hartzailea, herriko jende askok hartzen zuelako parte.

11 Burundan 900 lagun sartzen dira. Tokia badago, jaialdira animatuko dugu jendea.

I.: Ongi pasatzeko prest daudenak ongi etorriak izan daitezela. Nik uste partida lehiatua izango dela, polita. Izan ere, pilotari onak izan direnak badakite besteekin jokatzen, eta beraiek gurera moldatuko dira.

619 821 436
 info@gkomunikazioa.eus
 www.gkomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu

ERAMAN ZURE MARKA
BESTE MAILA BATERA
 Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe